

hh
hik hasi

Jantokia aztergai
Arreta goiztiarraz Alvaro Beñaran
Pedagogo sortzaileak:
Emmi Pikler
Filosofiaren lekua hezkuntzan
'Uhartearen altxorra' erakusketa
Irati Anda

2017



“
Ondo badago,
umeak berez ikasten du”

HEIKE FREIRE

IRUDIMENA PIZTEN DUTEN ISTORIOAK

8-12
urte

LOAREN INBASIO ISILA

Ara Jaka - Iñaki Hidalgo

Uxuegen eskolara irakasle berri bat etorri da, eta gauzak aldatu egin dira.



UDA BAT SENEGALEN

Liz Gollintegi - Susanna Martin

Garazik eta Izarok uda osoa Senegalen pasatuko dute.

ERRALDOIAK

Xabier Olaso - Enrique Morante

Eraldoi da aita, Maritontai da ama, eta Patxikankailu semea, eta eraldoen familia osatzen dute.



PORT LAJOYEKO SORGINA

Joyce Berkhous - Paul Caballero

17 urteko neska eskaikatu bat Kanadako miñmak indioen buruzagiaren semearekin ezkondu zeneko kontua.

AURKIBIDEA

GAIA / 10

JANTOKIAK AZTERGAI

Eskolako jantokietako ereduak aldatu beharra dagoela aldarrikatzen duten ahotsak gero eta ugariagoak dira: guraso elkarteak, hezitzaileak, sindikatuak, instituzioak, pedagogoko nahiz psikologoak... Eredu berri baterantz egiteko hiru erronka identifikatzen dituzte hezkuntza-eragileek: jantokia gune hezitzaile bilakatzea, lanpostuei 'duintasuna' ematea eta elikadura burujabetzan oinarritzea.

ELKARRIZKETA / 18

HEIKE FREIRE

Hamar urtez Frantziako administrazioarentzat hezkuntza-aholkulari lanetan aritu ondoren, bakarkako bidea hartu zuen Freirek hezitzaile, formatzaile eta idazle gisa. Heziketarekin loturiko ehunka artikulua idatziak ditu eta baita bi liburu ere: bata heziketa berdearen inguruan eta bestea hiperaktibitatearen eta arreta gabeziaren gainean. Uneotan *Cuadernos de Pedagogía* aldizkariko zuzendari ere bada.

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua. 20018 DONOSTIA GIPUZKOA. Tel: 943/ 371 408 ; www.hikhasi.eus; Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus; Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Joxe Mari Auzmendi, Ainara Gorostitzu, Amaia Mendizabal eta Arantzazu Muñoa.

Erredakzio batzordea: Kontxi Aizarna, Ainhoa Azpiroz, Izarne Garmendia, Miren Guilló, Aritz Larreta, Josi Diarbide, Elisabet Puiggros, Maite Saenz, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Arantxa Urbe eta Angel Usobiaga.

Aholkulariak: Nerea Agirre, Nerea Alzola, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines

Dufau, Lore Erriondo, Guillermo Etxeberria, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Xabier Isasi, Irene Lopez-Goñi, Izaskun Madariaga, Karmele Perez Urraza, Fito Rodriguez eta Matilde Sainz.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Diseinua: Grafkk.

Maketazioa: Xangorin.

Inprimategia: ANtza S.A.L. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak onetsia (2016-12-19).

Kopurua: 4.100 ale.

Hik Hasiko artikuluez edonon eta edonoiz balia zaitezke. Kasu horietan iturria aipatzea eskertuko genizuke. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plazaratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

5 EDITORIALA

Balia dezagun PISA

6 ALBISTEAK

10 GAI NAGUSIA

Jantokiak aztergai

18 ELKARRIZKETA

HEIKE FREIRE

"Eskolak mundura zabaldu behar du, ahal duen modu guztietara"

26 ESPERIENTZIAK

Arreta goiztiarra

Santo Tomas Lizeoan

30 EKARPENAK

Pedagogo sortzaileak:

Emmi Pikler

36 GALDEIDAZU

OIHANA AMESKUA

Zergatik eta zertarako da beharrezkoa filosofia eskolan?

39 ARGITALPENAK

40 PROPOSAMENA

'Uhartearen altxorra' erakusketa

42 ATZEKO ATETIK

Irati Anda



IZEI

5

+

10

eta

HODEI



batuketak

4

EA DA, ZENBAT DIRA BI GEHI BI?

Arpa

AUSKALO!! EZ BADIGUZU
DATU GEHIAGO EMATEN.



Balia dezagun PISA

editoriala

PISA-K GABEZIA BISTARATU DU. ORAIN NOLA EMENDATU? ARDURAK HARTUZ. IKASLEEK ETA IRAKASLEEK EURENAK, BAINA BAITA GURASO ETA GIZARTE OSOAK ERE, KOMUNIKABIDE, ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE POLITIKOEN.



Eta, bat-batean, denak hezkuntzaz hasi dira hizketan. Hezkuntzaz okindegian, igogailuan, eskola-atarian, irratietan eta etxeetan, mahaiaren bueltan. Zergatik? Bada, PISA gatik. Horixe gutxienez eskertu behar zaio OCDEk egiten duen txostenari: hezkuntza hizketa-gai, kezka-iturri, gogoetarako bide bihurtu du. Eta ez da gutxi.

Baina kritikan gelditu dira batzuk. Hatzari begira: PISAren filosofia neoliberala kritikatzeko gauza bat da, baina zenbaitek aldagai ekonomikoetan oinarrituriko balorazioak eta rankingak egiteko erabiltzen dutelako ezin da osoki errefusatu PISAren txostena. PISAk argazki bat atera du. Pertsonen garapen osoa bilatzen duen hezkuntza-ereduarentzako ere —konpetentzietan hezteko, pertsona gai eta baliagarri bilakatzeko bidean ere— nola gabiltzan erakusten duen argazki bat atera du. PISA adierazle bat da, beste bat, eta kanpo-ebaluazio baliagarria da haren funtzio diagnostikoa probesten bada, hutsuneak ikusarazten dituen neurrian eta nola emendatu pentsarazten duen neurrian.

Hatza besterengana luzatu dute hainbatek. Erruak besteren etxean bilatzen lehenak ardurdun politikoak izan dira. Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako ikasleek atera dituzten emaitza txarren arrazoiak ematen hasita, ikasleak eta gurasoak aipatu zituen Cristina Uriarteren Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, ikasleek teknologia berriak jolasteko erabiltzen dituztela, eta inpulsibitateak erakusten dutela eta gurasoen maila sozioekonomikoa jaitsi egin dela eta... Hatza besterenera luzatzea erraza da. Baina argazkira luzatu behar da hatza. Argazkiak dio Araba, Bizkaia eta

Gipuzkoako ikasleek gaitasun zientifikoa, matematikoa eta irakurmena ebaluatzen dituzten azterketetan duela hiru urte baino emaitza txarragoak lortu dituztela —Nafarroako ikasleek inoizko daturik onenak eman dituzte—. Arazo bat erakusten du argazkiak, tendentzia bat izan daitekeena.

Gabezia bistaratu du, bada, argazkiak. Orain, nola emendatu? Hasteko, ardurak hartuz. Ikasleek eta irakasleek eurenak, baina baita guraso eta gizarte osoak ere, komunikabideek eta administrazio eta erakunde politikoek. Zenbat inbertitzen da hezkuntzan? Zenbat murriztu da? Nola igo dira ratioak? Zer garrantzia ematen zaio etxean irakurtzeari? Zer nolako saioak ditugu telebista-irratietan? Hezigarriak dira? Kanean zer nolako balioak eta jokabideak goresen dira? Laguntzen al dute jokabide horiek eskolan? Irakasleek zenbat denbora galtzen dute isiltasuna eskatzen? Zer nolako garrantzia ematen zaio formazioari? Irakasleek zer nolako motibazioa daukate? Nolakoak dira guraso eta irakasleen arteko harremanak? Zer nolako autonomia eta erabakimena daukate zentroek eta irakasleek hezkuntza proiektuan? Eskola euren sentitzen al dute? Gaurko hezkuntza egiturak laguntzen al du? Guztiak du isla PISAren emaitzetan.

Eta orain, bat-batean denak hezkuntzaz hizketan hasi diren garai honetan, denok, bakoitzak bere eremutik, hezkuntzaren gainean ditugun ardurez gogoeta egiteko baliatu behar dugu PISA. Hezkuntzaren garrantziaz hausnartzeko eta hezkuntzan sinesteko. Hezkuntzan inbertitzeko. Gardena eta konfiantzaz jokatzeko garaia da, ikasleekin eta irakasleekin bereziki.

“Hirugarren ingurunean (teknozientziak, sare telematikoak, interakzioko espazioak, Google, Facebook, Twitter...) teknopertsonak garatu dira, beste egitura mota bat. Pertsona fisikoak dira oraindik ere, juridikoak, baina horien gainean beste identitate bat agertu da, teknopertsona. Egun, XXI. mendean bizi den pertsona batek teknopertsona izaten ikasi behar du... bere eskubideak eta erantzukizunak zeintzuk diren jakin behar du”

Javier Etxeberria



PISA-KO AZTERKETETAN EMAITZA TXARRAK ESKURATU DITUZTE ARABA BIZKAIA ETA GIPIZKOAKO IKASLEEK; NAFARROAKO EK, OSO ONAK

PISA txostenaren 2015eko emaitzek datu kezkarriak jarri dituzte mahai gainean Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeei dagokienez: zientzietan eta matematikan inoizko emaitza txarrenak izan dituzte 15 urteko ikasleek, eta irakurmenean 2006an soilik izan zituzten datu okerragoak. Haatik Nafarroako ikasleen emaitzak oso onak izan dira: Europako Batasuneko eta OCDE Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko batezbestekotik nabarmen gora kokatu dira.

2015eko maiatzean 15 urteko ikasleei gaitasun zientifikoa, gaitasun matematika eta irakurmena neurtzeko egindako azterketen emaitzak dira. Hiru alorretan aurreko azterketan —2012an egin zen azken PISA txostena— baino emaitza txarragoak atera dituzte, eta, gainera, hiru aldagaietatik bitan OCDEko datuen azpitik daude. Beherakada handiena gaitasun zientifikoa alorrean erdietsi dute: 23 puntu gutxiago atera dituzte, OCDEko batezbestekotik hamar puntu behera daude Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako ikastetxeak. Matematikan, 500 puntu baino gutxiago lortu dituzte lehen aldiz: 492. Irakurmenean 7 puntu galdu dituzte eta OCDEren batezbestekoaren azpitik gelditu dira.

Nafarroan emaitzak onak izan dira. Hiru ikasgaietan 500 puntutik gora erdietsi dituzte ikasleek eta OCDEren batezbestekoak nabarmen gainditu dituzte. Gaitasun zientifikoetan 512 puntu lortu dituzte, 2013an baino bi puntu gutxiago, baina OCDEko zifren gainetik: hemeretzi puntu gehiago. Matematikan, berriz, 518 puntu erdietsi dituzte, aurreko ebaluazioan baino bat gehiago. Handiagoa izan da gorakada irakurmenean: 514 puntu izan dituzte, 2012an baino bost gehiago.



JAURLARITZAK 818 PLAZAKO LEP-A PROPOSATU DU; SINDIKATUENTZAT GUTXIEGI DA

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, irakasle funtzionarioen ordezkari sindikalekin elkartu ostean, 2017rako 818 plaza izango dituen Lan Eskaintza Publikoa deitzea proposatu zuen abenduaren 23an. Horietatik 47 plaza 2016ko LEPean hutsik gelditu zirenei dagozkienak lirateke. Espainiako Gobernua finkatutako muga betetzen du eskaintzak, eta Lanbide Heziketakoak, Lehen Hezkuntzakoak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako postuak izango lirateke. Jaurlaritzak azterketa ekainean egitea proposatu du. Haatik, sindikatuentzat, «eskasa» da Uriartek proposatutako 818 postuko lan eskaintza.

Oro har, sindikatuek uste dute LEPak ez duela balio hezkuntzako langileen behin-behinekotasun-tasa apaltzeko, ezta irakasle gabeziari konponbidea emateko ere. Behin-behinekotasuna %37an dagoela esan du ELAK; %30ean UGTK. CCOO izan zen bileratik «baikor» atera zen bakarra. Behin-behinekotasuna desagerrarazteko lehen urrats «garrantzitsutzat» hartu dute eskaintza sindikatuko ordezkariak.

LAB eta Steilas sindikatuek, bestalde, Lan Eskaintza Publikoarekin «inprobisatzea» egotzi zioten Hezkuntza Sailari. Iruditzen zaie «presaka eta planifikatu gabe» hartutako erabakia dela, eta gainera, txarretsi dute ekainera bitartean ez dagoela azterketa prestatzeko behar beste denbora.

HIZPIDE IZAN DA

Iturria: Berria egunkaria

HIZKUNTZA GUTXITUEN OFIZIALTASUNA ETA LEHENTASUNA ESKATU DU HIZKUNTZA ESKUBIDEAK BERMATZEKO PROTOKOLOAK

Hizkuntza gutxituen alde diharduten eragileek Hizkuntza Eskubideak Bermatzeko Protokoloa sinatu zuten abenduaren 17an, Donostiako Kursaal jauregian. Europako hizkuntza gutxituetako eragileak izan dira, hain justu, protokoloaren bultzagileak. 400 proposamen baino gehiago aurkeztu dituzte bultzatzaileek eta testuan 185 neurri jaso dituzte, hizkuntza gutxituetako hiztunen eskubideak bermatzen direla ziurtatzeko. Hizkuntza gutxituari ofizialtasuna eta lehentasuna emateko eskatu dute protokoloaren bidez, hizkuntzen arteko berdintasuna helburu jarrita, lehentasuna ematea horretarako tresna dela diote. Donostiako 2016ko kultura hiriburutzaren alboan taxutu dute protokoloa, eta hiriburutzaren balioen gisakoak baditu testuak. Bat: elkarbizitza eta bakea. «Hizkuntza komunitateen duintasunaren errespetuak ekarriko du bakea». Bi: aniztasuna. «Hizkuntza aniztasuna babesten dugu gizateria osoaren aberastasun kulturalaren parte delako». Hiru: berdintasuna. «Munduko hizkuntza guztiei balio bera aitoritzen diegu. Gaur egun, euren egoeran desberdintasun handiak daude». Lau: eskubideak. «Pertsona eta talde ororen eskubideak babesten ditugu».



NAFARROAKO INSTITUTUETARAKO OPOSIZIOAK 2018RA ATZERATZEKO ESKATU DUTE SINDIKATUEK

Datorren urtean Bigarren Hezkuntzako Lan Eskaintza Publikoaren deialdia egiteko asmoa duela esan zuen berriki Hezkuntza kontseilari Jose Luis Mendozak, baina gaur egun horretarako «baldintza egokirik» ez dagoela uste dute LAB, ELA eta Steilas sindikatuek: «Ganoraz aztertu behar da irakaskuntza sektorearen errealitatea, eta egungo egoeraren diagnosi sakon bat egin, etorkizuneko beharrak identifikatzeko eta ahalik eta oposizio prozesu aberatsena aurkezteko», Horregatik, sektorearen beharrak aintzat har ditzala eskatu zioten Hezkuntza Departamentuari, eta lan-eskaintzaren deialdia ikasturte honetan atera arren, hautaprobak 2018ra atzeratzeko eskatu dute. Izan ere, sindikatuek ez dute «presaka eta arduragabekeria» eginiko deialdirik nahi.





SORTZENEN JAI A IRUÑERA ITZULIKO DA MAIATZAREN 21EAN AUZO BIZITZAREN ETA BURUJABETZAREN ALDARRIAREKIN

Iruñera bueltatuko da Sortzen Elkartearen jai 2017ko maiatzaren 21ean, sorpresaz beteta. Jaiaren pertsonaia aurkeztu du Sortzenek Iruñeko Gaztelu Enparantzan egindako agerraldian: Ikaskilo, hezkuntza komunitateko barraskiloa. Eta, pertsonaiarekin batera, bere ametsa: Auzo Bizi Onaren Eskola eta Hezkuntza Burujabetza. Hezkuntzaren inguruko eztabaida berriak sustatu nahi ditu elkarteak jaiaren bidez. Jai antolatzeke arduraz ez du, aurreko urteetan egin den moduan, ikastetxe batek hartuko; eskola guztien artean antolatuko da auzolanean.



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ TALDEAK NAZIO BATZAR IREKIA ANTOLATU DU URTARRILAREN 28RAKO ALTSASUN

Izan, Egin, Eragin izenburupean gogoeta prozesua ari da egiten Euskal Herrian Euskaraz taldea. Gogoetaren helburua da Euskal Herriaren berreuskalduntze-prozesuak datozen urteetan izan beharreko helburu eta ezaugarriak zehaztea, eta horiek erdiesten laguntzeko, EHEk izan beharreko izaera eta jorratu beharreko ildoak adostea. Horretarako bidea hasi du dagoeneko taldeak eta urtarrilaren 28an, 10:00etan, Altsasun egingo den batzar irekian emango zaio amaiera. Batzarrean parte hartu nahi duenak ehe@euskalherrianeuskaraz.org helbidera idatzi behar du joango dela esateko. EHEren hurrengo geltokia, berriz, martxoaren 18an Arrasaten egingo den *Euskaraz Bizi Eguna* izango da.

ZIENTZIA EDUKIEN DOAKO APLIKAZIOA GARATU DU ELHUYARREK

ZientziApp, zientzia-edukiak eskaintzen dituen doako aplikazioa sortu du Elhuyarrek. Zientzia-edukiak euskaraz edonon eta edonoiz eskura izateko lehen aplikazioa da Zientzi-App. Zientziarekin loturiko audioak, bideoak eta agenda eskaintzen ditu doan, eta Google Play Store-n eta App Store-n eskura daiteke.

Aplikazioak zeintzia-eduki berriak eskainiko ditu egunero: zientzia eta teknologiari buruzko azken albisteak, bideo dibulгатiboak eta audio-artxiboak, informazioa nonnahi eta noiznahi jasotzeko, nahieran. Eduki guztiak Elhuyar Zientzia erredakzioan landuko dira. *Zientzia.eus* webgunean ere argitaratuko dira. Horrez gain, zientzia eta teknologiaren inguruko ekitaldien berri ere emango du, agendaren bitartez.

HEZIKETA EMOZIONALA EDOTA ADIMEN ANIZKOITZAK BILBON

Tuinnovas egitasmoak hiru ikastaro nagusi antolatu ditu 2017rako: *Body Percussion* otsailaren 17 eta 18an; heziketa emozionalaren ingurukoa martxoaren 24 eta 25ean; eta adimen anizkoitzei buruzkoa maiatzaren 19 eta 20an. Informazio gehiago tuinnovas.com helbidean eskura daiteke.

HIZPIDE IZANGO DA

MARTXOAREN 25EAN, TROKONIZEKO WALDORF ESKOLA EZAGUTZEKO AUKERA IZANGO DA HIK HASI-REN ESKUTIK



Trokonizen (Araba) dagoen Geroa eskolako proiektu pedagogikoa ezagutzeko egun osoko bisita antolatu du Hik Hasi-k martxoaren 25erako. Goizean, Waldorf pedagogiaren inguruko azalpen orokorra jaso ahalko da bertako irakasleen eskutik; arratsaldean, berriz, taldeka banatuta Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako nondik norakoen berri emango dute hezitzaileek, hamar urte baino gehiagoko ibilbidean pilatutako esperientziatik.

Waldorf pedagogia Rudolf Steiner (1861-1925) pentsalari eta hezitzailearen filosofian oinarritzen da. Filosofia horrek, haurraren bizi-beharrak asetzeko, haurraren eta haren garapen naturalean oinarritutako pedagogia proposatzen du. Era berean, haurraren garapen-beharretan laguntzea helburu duen hausnarketa-lanean oinarritzen da.

Pedagogia horretan, ikaslea da curriculumaren zioa. Eta haurra heztearen helburua haren gorputz-garapenean eta garapen psikologiko eta kognitiboan laguntzea da, nork bere autonomia lortzeko bidean. Era horretan, heldua denean inguruan era sortzailean jarduteko, libreki hautatzeko eta ekintzaile izateko.

Gaske libreak hezi nahi dituzte Trokonizko Geroa eskolan, baina badakite libre izateko jakintza behar dela. Jakintza eskuratzeko bide horretan, tentu handiz zaintzen dute ikasle bakoitzaren ikasketa-eritmoa.

Bisita pedagogikoan izena emateko epea otsailaren hasieran irekiko da eta hikhasi.eus webgunean egin ahalko da matrikula. Hurrengo aldizkarian zehetasun gehiagoren berri emango da.

ONGIZATEAREN GIDA ATERA DU HIK HASI-K, HAZI HEZI ALDIZKARIAREN OSAGARRI

Hazi Hezi aldizkariaren osagarri gisa, haurraren eta familiaren ongizaterako mesedegarri izan daitezkeen zerbitzu eta baliabideen gida argitaratu du Hik Hasi egitasmo pedagogikoak.

Nora jo haurrak, gurasoak, familia osoki zaintzeko? Buru eta gorputz, adimen eta emozio, zaintzen laguntzeko? Elikadura-aholkularitza jasotzeko? Nora jo fisioterapia obstetrikoa behar badugu? Haurrak entzumen arazoengatik eskolak jarraitzeko ezintasunak baditu? Nora, sexualitateaz lasai hitz egiteko? Nora, nolako ume-eramailea behar dugun jakin nahi badugu? Nora kalitatezko jostailuez aholkatzeko?

Galdera horiei erantzuten laguntzeko, konfiantzazko hainbat profesionalen, zerbitzuren eta materialen berri ematen da gidan.





Eskolako jantokietako ereduak aldatu beharra dagoela aldarrikatzen duten ahotsak gero eta ugariagoak dira: guraso elkarteak, hezitzaileak, sindikatuak, instituzioak, pedagogo nahiz psikologoak... Guztiak bat datoz jatordua bera eta bazkaldu osteko denbora-tartea heziketarako oso une garrantzitsuak direla baieztatzean. Jantokiaren ereduak nolakoa izan behar duen zehazterako garaian, ordea, era bateko zein besteko iritzia entzuten dira. Edozein kasutan, eredu berri baterantz bidea egingo bada, hiru erronka nagusi identifikatzen dituzte hezkuntza-eragileek: batetik, jantokia gune hezitzaile bilakatzea; bigarrenik, bertan sortzen diren lanpostuei 'duintasuna' ematea; eta hirugarrenik, elikagaiak bertakoak, garaikoak eta osasuntsuak izatea.

GAIA:

JANTOKIAK

AZTERGAI

Hiru gako aldaketarako: izaera hezitzailea, lanpostu duinak eta elikadura burujabetza

Euskal ikasleen erdiek baino gehiagok bazkaltzen dute egunero jantokian. Eta ikasle horiek eskolan igarotzen duten denboraren herena inguru –batzuetan gutxiago, besteetan gehiago–, bazkalorduan eta bazkaldu osteko denbora-tartean pasatzen dute. Baliabide urriko familietako haurrei eguneko otordu nagusia eskolan doan emateko sortu baziren ere, gaur egun, nagusiki, beste funtzio bat betetzen dute jantokiek: guraso biak lanean dituzten seme-alabei eskolan bazkaltzeko aukera ematea. Azken hogeita hamar urtean nabarmen egin du gora eskolako jantokietan geratzen diren ikasleen kopuruak. Egoera berri horri erantzuteko, jantokietako eredia estandarizatu egin da, eta eskola ia guztietan catering enpresa handiak arduratzen dira eskoletako ikasleen bazkal-garaia kudeatzeaz.

Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan 2000. urtetik dago indarrean gaur egungo eredia. Ordura arte, eskola bakoitzak bere funtzionatzeko modua zeukan eta guraso-elkarteak arduratzen ziren jangelaz. Hezkuntza-eragileetako ordezkari zenbaitek diotenez, dezenteko “anabasa” zegoen, eta ondorioz, langileek eta gurasoek eskatuta, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen eskola publikoetako jangeletako ardura eta oraingo eredia sortu zuen, nolabait, zerbitzua “unibertsalizatzeke”. Harrezkero, Jaurlaritzak lau urtean behin lehiaketa-publikoa egiten du catering enpresen artean

jantokien kudeaketa esleitzeko. Gaur egun, Hezkuntza Sailaren mendekoak diren 400 langile inguruk eta enpresa azpikontratatuetakoa beste 4.500 bat beharginek egiten dute lan jangeletan.

Azken urtebete honetan inoiz baino ozenago entzun dira jantokien kudeaketari loturiko kritikak eta ugaritu egin dira 2000. urteko Eusko Jaurlaritzaren dekretua agortuta dagoela salatzen duten eragileak. 2016ko otsailean egin zuen eztanda krisiak: Lehiaren Euskal Agentziak hemezortzi milioi euroko isuna ipini zien azken hamarkada luzean zerbitzu horretaz arduratzen ziren zortzi enpresei: adostutako prezioak jartzea eta konpetentziak eragozteko egotzi zieten. Hala, Eusko Legebiltzarrerara iritsi zen auzia eta hitzartu zuten eskola bakoitzari aukera eman ziezaiotela nahierako kudeaketa-eredua aukeratzeko: cateringa, autokudeaketa, edota beste erakunde lokalak. Era berean, onartu zuten eskolek aukera izatea aurretiaz Jaurlaritzak homologatutako catering enpresa hautatu eta zuzenean negoziatzeko. Badirudi, ordea, momentuz, aldaketa gutxi gertatu direla eta ereduak bere horretan dirauela.

Hezkuntza-eragileak ez dira konforme: jantokiak kudeatzeko eran aldaketa beharra ikusten dute, eta lanean dihardute jangela-eredu berri bat eskatzeko proposamenak lantzen eta proiektu-pilotuak egituratzen. Euskal Herriko Ikasleen

GAIA:

JANTOKIAK AZTERGAI

Hiru gako aldaketarako: izaera hezitzailea, lanpostu duinak eta elikadura burujabetza

Gurasoen Elkarteak (EHIGE), esaterako, 2010ean jantokien kudeaketarako proposamen bat argitaratu zuen. **Lurdes Imaz EHIGEn bozeramaileak** dioenez, 2000. urteko dekretuak ez die erantzuten gaur egungo beharrei: “Ikasle guztien premiei erantzungo zien araudi bat ateratu zuen Eusko Jaurlaritzak, eta guk momentu hartan erabaki hura ondo ikusi genuen. Baina denborarekin konturatu gara ereduak erabat uniformizatu eta zentralizatu dela, eta ondorioz, gurasoek galdu egin dutela euren seme-alabek jaten dutenaren gaineko kontrola”. Azken urteetan, berriz, VSFrekin (Mugarik Gabeko Albaitariak, elikaduraren inguruko justizia eskatzen dute) batera, *Gure platera, gure aukera* izeneko egitasmoa ari da garatzen EHIGE, eskolako jantoki “osasuntsuak, bertakoak eta justuak” aldarrikatzeko. Hala, jantokia espazio integrala eta integraztailea izatea nahi dute, ez soilik “zerbitzu osagarri” bat: “Eskolako jantokiek duten balore pedagogikoa berriro hartzea nahi dugu eta gure seme-alaben elikadura gure ingurunearekin eta kulturarekin bat etortzea”, diote *gureplateragureaukera.eus* webguneko aurkezpenean. Hain zuzen ere, proiektu horren gerizpean, jantokietan beste eredu bat posible dela erakusteko lau proiektu pilotu martxan jartzea lortu dute Eusko Jaurlaritzaren baimenarekin. Gernikako Allende Salazar, Markinako Bekobenta, Laukarizko eskola eta Urduñakoa dira eredu berri horretarantz urratsak ematen ari diren ikastetxeak.

Azken hilabeteetan, osterara, LAB sindikatua izan da atzera

ere jantokien gaia mahai gainean jarri duena, *Jantokitik Jantokigara* egitasmoa publikoki aurkeztuta. Eskoletako jantoki ereduak aldatzea lehentasunezkoa iruditzen zaio sektorean ordezkari gehien dituen sindikatuari, “elikatzeaz gain, heziketa, aisialdia, bizikidetzak, kultura, herriko enpleguari eustea edo berria sortzea, ingurumena edota osasuna ere” jantokiarekin loturiko gaiak direlako. **Zuriñe Andres eta Yolanda Formoso LABeko kideek** azaldutako eran, sindikatuaren proposamenak hiru erronka nagusi ditu: lehenik, lan arloari dagokionez, eredu berriak publikoak izan behar duela uste dute eta langileen baldintzak berrikusi behar direla; bigarrenik, ereduari lotuta, jantokiak gune hezitzaile bihurtu behar direla aldarrikatzen dute, eta horretarako bazkalorduan parte hartzen duten kide guztiak eskolako hezkuntza-proiektuan txertatu behar direla; eta hirugarrenik, elikadura burujabetza printzipio gisa kontuan hartzeko eskatzen dute, alegia, jantokian ematen diren elikagaiak garaikoak, bertakoak eta osasuntsuak izateko.

Izaera hezitzailea

Sorospen izaerarekin sortu bazen ere, azken hamarraldietan eskolako jantokia indarra hartzen eta eboluzionatzen joan da, eta haurren heziketarako duen balioa ez du inork zalantzan jartzen. Elikaduran eta higienean hezteaz gain, autonomia, ardura eta elkarbizitza balioetan hezteko ere



GAIA: JANTOKIAK AZTERGAI

funtsezkoa dela diote adituek eta legeak ere funtzio hezitzaile hori aitortzen dio jantokiari. Hala, Hego Euskal Herrian, Hezkuntza Sistemaren Ordenazio Orokorraren urriaren 3ko 1/1990 Lege Organikoko 65. artikuluan jasotzen da eskolako jantokiaren inguruko oinarritzko markoa. Bertan jantokia hezkuntza-administrazioak ematen duen zerbitzu gisa ulertzen da, eta bere egitekoa hezkuntzaren kalitatea hobetzea dela esaten da. Baina, errealitatean, jantokiak heziketarako guneak dira edota gizarte-antolaketa modu baten ondorioz sortu direnez, sistemaren beharrei erantzuten diete?

Hik hasi aldizkariaren 188. zenbakian *Eskolako jantokia. Heziketara gune?* izeneko artikuluan ageri den moduan, gaur egungo jantokien organizazioa oso konplexua da: cateringetik bertatik datozen baldintzapenak; sukaldea eskolan bertan dagoen kasuetan ere, janaria noiz eta nola prestatzen den; begirale lanetan aritzen diren pertsonen kontratuak eta lanaldiak; eskolaren egitura; jantokian geratzen diren haurren kopuru altuak... **Juanjo Quintela psikologoaren** esanetan, eskenatoki horretan ez du inork ezer zaintzen: “Eta ez naiz inondik inora ere pertsonak kritikatzeko ari, egestura bera kritikatzeko baizik. Egitura bera baita jatordua giza balio handiko momentua izan dadin eragozten duena. Nik aurretik giza balioa jarriko nuke, eta hori zaintzen dugun heinean agertuko da hezkuntza-balioa ere”. Eskoletan ere familian egiten diren antzeko jatordiak egitea iruditzen zaio aproposena Quintelari. Izan ere, familietan, elikatzeko-uneak balio hezitzaile handiko momentuak izan ohi dira. Sosegu handikoak eta familientzako plazererako unek. “Uste dut eredu hori bera eraman daitekeela ikasgeletara. Janarekin loturiko espazio bat izango genuke. Nik mahai bakoitzean lorontzi bat jarriko nuke eta baita mantela ere. Eta helduaren egitekoa litzateke momentua zaintzea lasaitasuna eta patxada mantentzen saiatuz eta guztiek batera disfrutatzeke unek sortuz”.

Alde batetik, beraz, jateko momentua haurren heziketarako gako dela esaten da. LABeko kideei, ordea, kontraesankorra iruditzen zaie aditu guztiak jangelaren balio pedagogikoa aldarrikatzen ari diren bitartean, legeak jantokiari “zerbitzu osagarri” izaera besterik ez aitortzea. “Gu ez gara ikastetxeke parte sentitzen. Kanpoko zerbait bagina bezala da. Horren erakusle da guk ikastetxeke hezkuntza-proiektuan tokirik ez izatea. Jantokiari balio hezitzailea aitortu nahi badiogu, hezkuntza-proiektuan txertatu behar dugu”, dio Formosok. Sukaldaria da bera, Hezkuntza Departamentuaren baitako langilea eta argi du jantokia ikastetxearen barruan dagoenez, gainerako eskola orduei eta haietan lantzen diren

irakasgaiei ematen zaien adinako garrantzia eman behar litzaiokeela: “Gure haurrek urtean 175 egunetan bazkaltzen dute jantokian, euren eskolako denboraren heren bat inguru igarotzen dute bazkalorduko denbora-tartean. Baina ordu horiei ez zaie garrantzirik ematen”. Ideia horrekin bat dator Andres ere, Atxuriko eskolako jantokiko hezitzailea: “Guk ere eskolaren parte izan behar dugula uste dugu, irakasleekin harreman estua eduki eta klaustroan lan egin. Bestela ezingo dugu eredu aldatu”. Oso estresatuta lan egiten dutela salatzen du: ratio altuekin —adibidez, LHko 1. mailan 25 ikasle ingururen ardura du begirale bakoitzak—, jateko denbora tarte txikiekin, zarata eta zalaparta handiarekin, espazio berean pilatutako haur multzo izugarriekin... “Gure estresa umeei transmititzen diegu. Beste sosegu batekin lan egin nahi genuke, haurrei denbora eta espazioa emanaz, baina ez daukagu modurik”.

Lanpostuei ‘duintasuna’ eman

Jantokietako hainbat sukaldari langile publikoak badira ere, behargin gehienek azpikontrataturako enpresetan dihardute. Jardun murrizetan egiten dute lan, koordinaziorako denbora gutxiarekin eta zenbait kasutan, formazio premia handiarekin. Hala dio Formosok: “Gu ez gara merkantzia bat. Pertsonak gara, gehienok emakumezkoak eta umeen heziketarako klabea den eremu batean egiten dugu lan. Beraz, dugun ardurari dagozkion baldintzak behar ditugu”. Hain zuzen ere, azpikontratazioak amaitu egin behar direla aldarrikatzen dute LABetik. Eta soldatak igotzea baino gehiago, bestelako



Hiru gako aldaketarako: izaera hezitzailea, lanpostu duinak eta elikadura burujabetza

baliabideak hobetzea eskatzen dute: “Gure lanaldia oso motza da eta lanaldi horretan ezin dugu ezer taxuz egin. Lana ondo egiteko ordu gehiago beharko genituzke”, dio Andresek. Hori hala, aurreko negoziazio-aldian, hiru ikasturtetan zehar, 40 greba egin zituzten jantokiko kudeaketaz arduratzaren diren enpresa azpikontratatu horietako langileek, hiru eskakizun nagusi egiteko: batetik, homologazioa eskatzeko, alegia sukaldari publikoekin berdintzea; bestetik formazioa; eta azkenik, zentroarekin koordinatzeko orduak. “Urteko 6 ordu lortu genituen formaziorako eta 18 ordu koordinaziorako. Baina horrekin ezer gutxi hobetuko dugu”.

LABeko kideek uste dute jantokiko langileek izaera hezitzaileko profila eduki behar dutela, eta horrexegatik formazioa eskatzen dute. Ingurunetik, ordea, —enpresetatik, administratibotik edota eskola-komunitatetik— askotan euren aldarriekin aurrera egiteko oztopoak jasotzen dituztela salatzen dute: “Komunitatean tokia badaukagu, baina hezkuntza-proiektua martxan jartzean ez gara existitzen. Zerbitzu osagarri bat gara. Guk, berriz, argi dugu umeekin lan egiten dugula egunean hainbat orduz; aitortzen dugu formazio premia daukagula eta geure buruak prestatzeko gertu gaude, baina beste eragileek ere izaera hori aitortu behar digute. Horrela bakarrik emango diegu gure lanpostuei duintasuna”.

Baina jantokiari, sukaldeari eta bertako profesionalei ikusgarritasuna emateko filosofia aldaketa behar dela azpimarratzen dute zenbait adituk. Izan ere, hezkuntzaren arloan behin eta berriz aipatzen da eskolek etxeen antza izan behar luketela eta komunitate-giroari garrantzia eman behar litzaiokeela, baina, errealitatean, eskolarik gehienetan jangelak eta sukaldeak —baldin eta sukaldetik badago— txokoren batean egon ohi dira, eta eskolak haiei bizkarra emanda. Eredu horri buelta eman behar litzaiokeela diote pedagogoez. Eta badira eredutzat har daitezkeen esperientziak ere. Esate baterako, Italiako Reggio Emilian, jantokiak nahiz bertako langileek sekulako rola jokatzen dute. **Alfredo Hoyuelos doktore europarrak**, Loriz Malaguzzi pedagogoareneko hitzak oinarri hartuz, zera dio: “Normalean, sukaldeak bazterren batean egoten da, baina eskolaren erdira eramaten bada, begi bistan uzten da bertan lan egiten duenaren profesionaltasun maila. Oso garrantzitsua da umeek sukaldean gertatzen dena ulertzea eta bertan lan egiten duten profesionalak baloratzea”.

Ildo berean, Malaguzziren beste esan batzuk ere aipatzen ditu Hoyuelosek: “Reggio Emiliako gure eskoletan, langile guztiek (hezitzaileek, sukaldekoek eta garbitzaileen talde-

koek) bilera pedagogiko eta formazioko kurtso berberetan hartzen dute parte. Barneko harreman hau existitzen bada eta funtzionatzen baldin badu, helburu altuak lor daitezke: umeak askoz ere seguruago sentitzen dira, batetik; eta, bestetik, ikusten dute han dauden gizon-emakumeek batera egiten dutela lan, batera egiten dutela esfortzua eta, batez ere, batera pentsatu eta eztabaidatzen dutela”.

Bertakoa, garaikoa eta osasuntsua

Eskoletako jantokiak tokian tokiko ekoizpena eta ekonomia lokalari ekarpena egiteko ere balio behar duela uste dute LABek, EHIGEk nahiz beste hainbat eragilek. Horrexegatik, elikadura burujabetzaren bidean jartzeko aldarria egiten dute. *Jangelak, eredu berri baterantz* izeneko txostenean hala aipatzen du LABek: “Jangelen eredu honek ekarpena egin behar dio gure portuen biziraupenari, arrantza eta nekazaritza alorrari, lehen sektorean enplegua sortzeari, produkzio agroekologikoari, tokiko ekonomiari eta gure ingurumena zaintzeari. (...) Gure apustua sasoiko elikagaiak gure ikastetxeetako sukaldeetara ekartzea da. Baina ez dugu horretan geratu nahi, ikasleei eta eskola-komunitate osoari horrek gure kulturen eta ekonomian zein osasunean dauzkan onurak azaldu nahi dizkiogu”. Horretarako, autokudeaketa eta *in situ* sukaldeak bultzatzen dituzte sindikatutik, argi baitute elikadura-burujabetza sustatzeko eta jantokia hezkuntza-proiektuan txertatzeko, kanpoko catering enpresak kontratatzea ez dela bidea. “Ezagutu behar dugu zer jaten dugun, jaten dugun hori nondik datorren, nork ekoiztea den, nola bizi den elikagai horien ekoizlea, zenbat kostatzen den egunero jaten dugun ogia ekoiztea. Azken batean, gure herria ezagutu behar dugu, nahi dugun eredu horren alde egiteko. Ez dugu ahaztu behar gaur egun jantokietan dauden umeak izango direla biharko kontsumitzaileak”, argitzen du Formosok.

Antzeko iritzia du EHIGEk ere. Kalitatezko elikagaiak erabiltzearen aldarria egiten du elkarteak, bertako eta sasoiko produktuen alde ageri da, eta gaur egungo eredu nahiko modu kaskarrean baloratzen dute: “Kaloria gehiegizko menuak, proteinaz beteak, aurretik egindako eta frijitutako elikagai gehiegirekin... Cateringeko makro enpresen aurrean gaude, aukeratu ere egin ezin ditugunak. Eskolako langileek, monitoreek zein familiek ez dakigu ezer enpresari buruz. Zer erosten dute? Non? Jasangarritasun-irizpiderik jarraitzen al dute? Bertakoa erosten al dute? Zelan prestatzen dute janaria? Zein osagai erabiltzen dituzte? Osasungarriak al dira? Menuak zein irizpiderekin egiten dituzte?”.

Malgutasuna eta autonomia

Bistan da gaur egungo eskoletako jantokien ereduak ez dituela asebetetzen hainbat familia, langile nahiz hezkuntza-eragile. Jangela zerbitzua unibertsalizatzea eta Hezkuntza Sailak bere gain hartzea lorpen handia dela onartzen dute gehienek, baina ez dute uste unibertsalizatze horrek uniformizazioa ekarri behar lukeenik. Kontrara, eredu “zurrun eta hertsia” aurrean, malgutasuna eskatzen dute, ikastetxeek autonomia izatea euren jantoki-ereduak diseinatzeko orduan eta zentro bakoitzean bazkalordua eta bazkalostea nolakoak izango diren erabakitzeke garaian.

EHIGEk eredu desberdinen alde egiten du apustu, tokian tokiko baliabideak lekuan lekuko errealitatera egokitu behar direla uste baitu. Imazek dioen moduan gaur egungo ereduak malgutu eta atek ireki behar litzaizkieke aukera desberdinei; hala nola, autokudeaketari, udal sukaldeak erabiltzeari, eskola-komunitateak berak enpresa aukeratzeari... “Sukalderik ez daukanari aukera eman dakioke jatorduez arduratuko den enpresa aukeratzeko, berak diseinatutako irizpideen arabera”. Hala, eskolak aukera izango luke irizpide ekonomikoak ez ezik beste batzuk ere kontuan hartzeko: zer-nolako langileak dituen enpresa

horrek, zein baldintzatan dauden, zer-nolako produktuak erabiltzen dituzten, elikagai ekologikorik erabiltzen ote duten... Imazen arabera, ez dago eredu idealik. Uste du aukera desberdinei eman behar litzaiekeela bidea eta ikastetxe bakoitzak izan behar lukeela aukera bere ereduak erabakitzeko. Horrez gain, beste era bateko enpresei ere —enpresa txikiagoak, tokian tokikoak...— jantokietako zerbitzua emateko aukera zabaldu nahi diete. Izan ere, gaur egun homologazioa lortzeko eta Eusko Jaurlaritzak deitzen dituen lehiaketa-publikoetan parte hartu ahal izateko, gutxienez egunean 5.000 menu egiteko gaitasuna izan behar du enpresak, eta baldintza horiek betetzen dituzten organitzazioak oso bakanak dira.

Larrabetzu eta Erandiokoak dira urte hauetan guztietan beren kudeaketari tinko eutsi dioten bakarrenetarikoa. Ez dira sartu Eusko Jaurlaritzaren kudeaketapean. Baina ordainetan, finantziario guztia beste bide batzuetatik lortu behar izan dute. Duela lau urte inguru, ordea, beste hainbat eskolotako guraso-elkarteak ere lanean hasi ziren euren seme-alabek bertakoa, sasoikoa eta ahal dela ekologikoa jateko modua izan zezaten. Eta ahaleginak eman ditu fruituak: EHIGE bidelagun zutela eta Eusko Jaurlaritzaren baimenarekin lau ikastetxek proba pilotuan sartzeko modua izan dute. Horietatik hirutan autokudeaketaren ereduak ari dira lantzen —Gernikako Allende Salazarren, Markina-Xemeingo Bekobentan, eta Laukarizko eskolan—; beste batean, aldiz —Urduñakoan, hain zuzen— herriko udal sukaldearen bidez eman nahi dute zerbitzua. Ikasturte honetan Allende Salazarren eta Bekobentan jarri dute bertako eredu bat probatzeko sistema martxan. Beste biak helburu berarekin ari dira lanean.



GAIA:

JANTOKIAK AZTERGAI

Hiru gako aldaketarako: izaera hezitzailea, lanpostu duinak eta elikadura burujabetza

Martxan diren proiektu pilotu horien kasuan, sukaldariak publikoak dira eta sukaldeko nahiz jantokiko baliabideez ere administrazioa arduratzen da. Hortaz, guraso-elkarteen egitekoa da monitoreak kontratatzea eta elikagaiekin zerikusia duen guztiaren ardura hartzea, alegia, aurrez catering-enpresek egiten zuten lana egitea. “Momentu honetan gu esperientzia-pilotu horiei laguntza ematen ari gara. Guretzat oso garrantzitsua da proiektu horiek ondo ateratzea, gero ebaluatzen direnean araudia aldatzeko aukera izan dezagun, eta beste eskola batzuetan ere euren bidea egiteko modua izan dezaten”, argitzen du Imazek.

Gastu berberarekin askoz ere kalitate hobea

Eskolako jantokia beste era batera kudeatu daitekeela probatzen ari den eskoletako bat Gernikako Allende Salazar da. Joan den irailetik, guraso elkarteak kudeatzen du euren seme-alaben bazkalordua. 640 umek eta 12 nagusik jaten dute egunero eskolan. Eta gurasoek nahiz administrazioak diru gehiago jarri beharrik gabe, elikagaien kalitatea nabarmen hobetu daitekeela ari dira erakusten —lehengo bikoitza gastatzen dute elikagaietan—, eta bide batez bertako elikagaien eta ekonomia lokalaren aldeko apustua egiten.

Lau urte atzera egin behar da Allende Salazar proiektuaren ernamuina ezagutzeko. Zenbait guraso euren seme-alaben elikaduraren gainean kezkatzen hasi ziren, ikusten baitzuten gero eta deskonexio handiagoa zeukatela umeek jaten zutenarekiko: ez zekitela zer jaten zuten, jaten zuten hura nondik zetorren, eguneroko bazkariaren atzean nor

zegoen... Hala, hamaiketako osasuntsuaren gaia eskolan landu ostean, jantokiaren inguruan zer edo zer egin ote zezaketen pentsatzen hasi ziren eta txosten bat lantzen hastea erabaki zuten eskolarekin eta beste hainbat eragilarekin elkarlanean. Horretan ari zirela, goitik behera, Eusko Jaurlaritzaren proiektu-pilotu batean parte hartzeko deia etorri zitzaizen EHIGERen eskutik. “Aurreproiektu bat idaztea proposatu ziguten eta lanean hasi ginen”, kontatzen du **Dabid Zelaia-Zugadi Allende Salazar Guraso Elkarte**ko jantokiko lan-taldeko kideak.

Proiektu pilotuan sartzeko, nahiko argi zituzten helburuak Gernikako gurasoek, hilabeteak baitzaramatzaten jantokiaren gaia lantzen. Besteak beste, ondoko xedeak zerrendatzen ditu Zelaia-Zugadik:

- **Umeek osasuntsuago jatea.** Euren seme-alaben elikaduraren ardura euren gain hartzeko premia sentitu zuten Allende Salazar gurasoek: “Eguerdiko bi orduko tarte horretan gure haurrak ez genituen enpresa baten esku utzi nahi. Era berean, denbora eta espazio hori ere gure seme-alaben heziketarako baliatu nahi genuen, eta gure ekarpena egin eskola iristen ez den eremu horretan”.
- **Jasangarritasunari bidea irekitzea.** Helburu hau aurrekoarekin lotuta dagoela dio Zelaia-Zugadik, elikagaiak beste modu batera ekoizten badira jasangarriagoa izateaz gain ekosistemarentzat, haurren osasunerako ere hobea delako.
- **Lehen sektorea bultzatzea eta gertuko ekonomia sustatzea.** Eredu lokalean sinesten dute Gernikako gurasoek, “ahal denik eta eredu ekologiko eta naturalenean”. Era berean, Allende Salazarren neurriko



eskola batek horrelako aldaketa bat eginez, eredu ekonomikoaren alorrean, paradigma aldaketa bat egin daitekeela aldarrikatu nahi izan dute. Zelaia-Zugadik azaltzen duen moduan, familia askorentzat eskolako jantokia eredu ari da izaten eta hainbat etxetako ohiturak aldatzen ari dira, horrek ingurunean izan dezakeen eragin ekonomikoarekin.

- **Beste eskolentzat eredu izatea** eta eskolaren batek antzeko bidea egin nahiko balu oinarri bat ematea, hutsetik hasi beharrik ez izateko.

Administraziopeko zortzi sukaldarirekin, eskolako irakasle arduradun batekin eta aurreko begirale berberekin —subrogazio bidez enpresarenak izatetik guraso elkartearenak izatera pasata— ekin diote bideari. Xedea da aurrez catering enpresak egiten zuen lana, alegia, jangelako hezitzaileen kontratazioa eta elikagaien kudeaketa guraso elkarteak egitea. Orotara, 500.000 euroko aurrekontua daukate, eta gutxi gora-behera, kopuru horretatik erdia langileei ordaintzeko erabiltzen dute, eta beste erdia elikagaiak erosteko. Gurasoek, gainontzeko eskola publikoetan bezala, 4,60 € ordaintzen dituzte egunean ume bakoitzeko. Non dago, ordea, aldaketa? Zelaia-Zugadik argi dio: 4,60 € horiekin lortzen den emaitzan, “azken batean, catering-enpresek bitartekaritzaren lanerako erabiltzen zuten dirua aurrezten dugu eta diru hori jakietan inbertitzen dugu. Guk % 50 edo % 60 gehiago ordaintzen dugu kilo okela edo letxugak edo olioak. Ez familliek ez Eusko Jaurlaritzak zentimo bat gehiago jarri beharrik gabe kalitatean izugarri irabazi dugu”. Izan ere, Allende Salazargo gurasoek zuzenean erosten diete ekoizleei, eta mirariaren gakoa horixe dela uste dute. Gainera, lehenengo sektoreari ematen ari diren bultzada ekonomikoak ere esanguratsua da eta horrekin ere pozik daude, inguruko ekonomian eragiten ari baitira. Jardun erdiz koordinazio lanetarako pertsona bat kontratatzea ere lortu dute.

Urratsez urrats, mitoak apurtuz

Eskolako jantokian eredu berria ezartzeko lehen urratsa menuak egitea izan zen. 2016ko urtariletik apirilera horretantxe aritu ziren nutrizionista baten laguntzarekin. “Sasoiko produktuak erabiltzea zenez gure xedea, menu guztiak egokitu behar izan ditugu, eta horrek sekulako lana eman digu”. Izan ere, menu bakoitzaren atzean ez daude izenak soilik —“porruptatata eta petxuga piperrekin”, adibidez—, baizik eta baita gramajeak ere, alegia, haur bakoitzak elikagai bakoitzetik zenbat jan behar duen, edota menu bereziak —zeliakoak, arrautzarik jan ezin dutenak...—. Hala, pixkanaka, urte osorako beharko zituzten elikagaien zerrenda eta

bakoitzeko kantitatea zehaztea lortu zuten.

Bigarren urratsa elikagai-behar horiek asetzeko hornitzaileak aurkitzea izan zen. “Egongo ote da gure inguruan haur horiei denei jaten emateko adina elikagai?”, galdera hori egiten zieten behin eta berriz, eta mitoak apurtzea tokatu zaie Allende Salazargo gurasoei. “Ba bai, ia dena bertakoa da. Eta ez dagoena kanpotik ekartzen dugu; lekaleak, arroza, laranja edota platanok, adibidez”. Hala, elikagaien zerrenda osoa 12 lotetan sailkatu zuten eta lote bakoitzeko lehiaketa-publiko bat egin zuten, puntuak nola eman euren irizpideen arabera adostuta.

Eta zein izan da emaitza? Zer jaten dute Allende Salazargo haurrek? Busturialdeko arrautza ekologikoak; Ondarroako arrain freskoa; Errigoitiko esnekiak; Gernikako ogi ekologikoak; Gizaburuagako kontserbak; Basatxerri izendapena duen txerriak; Euskolabeldun behi okela; Arabako, Nafarroako, Ebroko eta Gaztelako lekaleak eta zerealak; Busturialdeko barazkiak; Busturialdeko, Nafarroako, Gaztelako, Valentziako eta Kanariar irltako fruta...

Allende Salazargo eskola-komunitatea, momentuz, oso pozik dago jantokiko funtzionamenduari. “Zerbait historikoa egiten ari garen sentsazioa dugu”. Uneotan, gida moduko bat osatzekotan dira, eraiki duten eredu estrapolagarria iruditzen zaielako: menuak nola egin, hornitzaileak nola aurkitu, osasunari dagokionez zer izan kontuan... “Gure nahia da guk egindako bidea beste batzuek aprobetxatzea eta hutsetik abiatu beharrik ez izatea”. Horrekin batera, bazkaltzeko haurrek izaten duten eguerdiko tarte horretan lantzeko baliabide pedagogikoak prestatzen ere ari dira, eskolako irakasleekin eta zuzendaritzarekin elkarlanean.

Hain zuzen ere, Zelaia-Zugadiren hitzetan, jantokia eraberritzeko proiektua ondo ateratzeko klabeetako bat eskola-komunitatearen parte-hartzea eta eragile ezberdinekin elkarlanean aritzea izan da. “Guk argi izan dugu ez duela balio zenbait gurasoren artean proiektua egin eta gero gainerako eskola komunitateko kideei aurkeztea, baizik eta hasieratik, urratsez urrats, guztiakin batera egin behar dela lan. Guk zuzendaritzarengana jo genuen hasieratik eta pauso guztiak haiekin batera eman ditugu. Euren kezka gure berberak baitziren: jantokiko makinaria administrazioarena izaten jarraitzea, irakasle arduraduna mantentzea, lehenengo langileekin jarraitzea...”. Azken batean, arian arian lortu dute bidea urratzea, eta eginez ikasi dute, dakien jendearengandik edanaz, sukaldariek egonaz, ingeniari agronomoengana joanaz, baserriarekin hitz eginaz, nutrizionisten aholkuak jasoz... Gustura daude emaitzarekin eta aurrera jarraitzeko irrikaz.



Argazkiak: Tristan Mayo

“Eskolak mundura zabaldu behar du,
errealitateari ateak ireki behar dizkio,
ahal duen modu guztietara”

ELKARRIZKETA: HEIKE FREIRE

PEDAGOGOA ETA FILOSOFOA

Psikologia eta filosofia ikasketak egin zituen Freirek Parisen eta hezkuntza-berrikuntzan espezializatu zen. Hamar urtez Frantziako administrazioarentzat hezkuntza-aholkulari lanetan aritu ondoren, bakarkako bidea hartu zuen hezitzaile, formatzaile eta idazle gisa. Pedagogiarekin loturiko ehunka artikulua idatziak ditu eta baita bi liburu ere: bata heziketa berdearen inguruan eta bestea

hiperaktibitatearen eta arreta gabeziaren gainean. Uneotan munduan zehar hitzaldiak ematen eta aholkulari lanetan ibiltzeaz gainera, *Cuadernos de Pedagogía* aldizkariko zuzendari da. Hezkuntzari buruzko ikuspegi orokorrak galdetuta, Freirek argi du eraldaketa kultural baten atarian gaudela eta hezkuntzari posizionatzea tokatzen zaiola, "hezkuntza ez delako kontu teknikoa, politikoa baizik".

Pedagogiaren arloan egin duzun ibilbide zabala kontuan izanik, eta uneotan *Cuadernos de Pedagogía* hezkuntza-aldizkariko zuzendari izateak eman diezazukeen ikuspegitik, gaur egun zein dira zure ustez hezkuntzak dituen erronka nagusiak?

Oraintxe bertan eraldaketa kultural baten atarian gaudela iruditzen zait, alegia, gure kultura aldatzeko premia larria daukagu, eta zentzu horretan hezkuntzak paper oso garrantzitsua jokatzeko du.

Eraldaketa kulturala diozunean, zertaz ari zara? Zein norabidetan aldatu behar genuke kultura?

Mendebaldeko gizakiok dugun kontzientziaren eraldaketaz ari naiz. Gure kontzientzia, historian zehar, naturatik urruntzen joan da eta horrek sekulako krisia eragin du. Nire ustez, espezie gisa, inoiz izan dugun krisirik larriena ari gara bizitzen, gure bizi-raupena arriskuan dagoelako. Krisi horri aurre egingo badiogu sekulako aldaketa daukagu egin beharra eta aldaketa horrek gure kontzientziatik hasi beharko luke.

Theodore Roszak ekopsikologiaren sortzaileak duen teoriarekin bat egiten dut nik. Ekopsikologiak 25 urte baino ez ditu eta ekologia giza psikearekin uztartzen saiatzen da. Izan ere, psikologiak beti gizakiaren gainean jardun du, baina ingurunea ahaztuta. Natura existituko ez balitz bezala garatu da psikologia, gizakiok ingurumenarekin zerikusirik izan gabe biziko bagina bezala. XIX. mendean, Mendebaldeko zibilizazioaren baitan, sendotu zen zientzia da psikologia, eta ez du gu ahaztu behar zibilizazio hori pixkanaka naturatik urruntzen joan dela, eta egitate horren arabera joan dela osatzen Mendebaldeko gizakion kontzientzia. Roszakek, kontzientzia horretan natura txertatzea proposatu du. Eta, kontzientzia horren eraldaketan eskolak sekulako garrantzia hartzen du. Izan ere, eskolak kontzientzia horiek hezten ditu marko kultural baten barruan. Gure kulturaren giza kontzientzia gainontzeko errealitate bereizita balego bezala hautematen da. Hortaz, Roszakek dio, nahitaezkoa dela gizakiak bere

kontzientzia zabaltzea eta natura kontzientzia horren parte egitea. Hala, naturaren suntsiketa geure txikizioa bailitzan hautemango dugulako, eta ondorioz, mundua suntsitzeari utziko diogulako.

Munduaren suntsiketa etetea... ez al da eskolarentzat erronka handi samarra?

Izan daiteke, baina irakasleei ematen dizkiedan formazioetan nik puntaren puntan jartzen dudana helburua horixe da. Irakasleok konturatu behar dugu naturaren kontzientzia berreskuratzeko zer-nolako garrantzia duen. Zientifikoki probatuta dago pertsonok natura barne hartzen duen kontzientzia zabal horrekin jaiotzen garela, baina zer gertatzen da? Heziketak kontzientzia horri etengabe mugak jartzen dizkiola.

Adibiderik jar dezakezu?

Amazonaseko oihaneko tribu bateko ume bati autorretratu bat egiteko eskatzen badiozu, paisaje oso bat marrazten du. Aldiz, gure kulturako haur bati gauza bera eskatu eta giza



irudiaren antzeko zerbait egingo du. Zergatik? Eskolan, denbora askoan zehar, giza irudi hori nola marraztu erakutsi diotelako, uste baitugu norbere gorputzaren irudi ona eraikitze-ko marrazki hori egiten jakitea oso inportantea dela.

Gure kulturaren hezten dugun kontzientzia norbere gorputzera, norbere pertsonara, norbere egora... mugatzen den kontzientzia bat da. Baina, kontrara, ez dugu taldeko kontzientziarik lantzen, alegia, izaki bizidun guztiak barne hartuko dituen kontzientziarik ez daukagu.

Beraz, nik eraldaketa kulturalaz hitz egiten dudanean, espezie gisa bizirautean lagunduko digun eraldaketa batez ari naiz, planeta suntsitzeaz gain, gizakion izate naturala ere txikitzen ari baikara.

Eraldaketa kultural horretarako, zernolako hezkuntza behar dugu?

Eraldaketa kultural horretan hezkuntzari posizionatzea tokatzen zaio, hezkuntza ez delako kontu teknikoa, politikoa baizik. Eta politikoa denez, hezkuntza lortu nahi dugun gizarte horren zerbitzura jarri behar dugu. Beraz, zer izan nahi dugun erabaki behar dugu: transgizakiak izan nahi dugu? Postgizakiak? Edo gizakiak izaten eta planeta honetan bizitzen jarraitu nahi dugu?

Eta heziketa mota hori haurrentzat soilik ez, helduontzat ere nahi dut nik, hezkuntza eraldaketa delako, baina ez umeentzat bakarrik, baita helduontzat ere. Hezkuntza gizartearen eta bizitzaren eraldaketa bezala ulertzen dut nik.

Helburu horiei begira egon beharrean, ez ote gaude arduratuago krisi ekonomikoaz, lan merkatuaz edota etorkizunean gaurko ikasleek izango duten egoeraz?

Bai eta horixe da LOMCEk esaten duena ere: merkatura egokituko diren haurrak hezi behar ditugula. Eta egia da, denok kezkatzen gaitu gure umeen etorkizunak. Inork ez dugu nahi gure seme-alabak, egoerak behartu dituelako, atzerrira joaterik. Hemen sortu nahi dugu haientzat etorkizun oparo bat.

Baina, etorkizun hori izan deza-

ten, trukean zer ari zaigu eskatzen sistema? Umeak doktrinatzeko, euren haurtzarora bizitzen ez uzteko, errendimenduaren logika haurren muinean txertatzeko... Baina langile onak baino lehen, pertsona onak behar ditugu, pertsona osoak, aita, ama, senide, lagun, herritar... onak. Eta dudarik gabe, langile onak izango dira. Baina langileen aurretik pertsonak hezi behar ditugu.

Gure kulturaren badirudi eskolan ordu mordoan eserita egoteagatik, ariketa guztiak egiteagatik, etxerako lanak txintxo betetzeagatik, nota onak ateratzeagatik, eskolaz kanpoko ekintza askotan parte hartzeagatik... etorkizunean lana izango dutela haurrek eta diru asko irabaziko dutela. Hala sinetsarazi digute, baina hori ez da egia.

Orain dela egun batzuk, Madrilgo auzo txiro bateko mutiko batekin hizketan ari nintzela, galdetu nion ea zergatik egiten zituen etxerako lan guztiak zintzo-zintzo eta zera erantzun zidan: "Etxerako lanak egiten ez baditut handitan eskalea izango naizelako eta banketxeren bateko atarian lo egin beharko dudalako". Nire etxe ondoan, garai batean banketxe izandako eraikin batean eskale bat bizi da. Egunero igarotzen naiz bere aldamenetik, eta, benetan, tentazioa izaten dut txikitzen etxerako lanak egiten ote zituen galdetzeko.

Kontzientziaren, kulturaren eta eskolaren eraldaketa aipatu dituzu. Eskolari "erabateko buelta ematea"... nola egiten da hori?

Eskola errealitateki erabat apartatutako tokia da. Baina pertsona batek kuriositatea senti dezan eta ikas dezan estimulurik onena errealitatea da. Zer gertatzen da, ordea, eskolan? Errealitateki ez dagoela. Errealitate guztia eskolatik kanpo dago. Eskola mundutik erabat bereizita dago, guztiz artifiziala da, eta gauza abstraktuekin ikasten da. Beraz, eskolak egin behar duena da mundura ireki, errealitateari ateak zabaltzea, ahal duen modu guztietara.

Adibide bat jartzearen, egin daitekeen ekintza garrantzitsuetako bat patioak eraldatzea da. Espazio berdeak behar ditugu haurrak dauden tokitik

“Hezkuntza ez da kontu teknikoa, politikoa baizik, eta politikoa denez, lortu nahi dugun gizarte horren zerbitzura jarri behar dugu”

“Langile onak baino lehen, pertsona onak behar ditugu, aita, ama, senide, lagun, herritar... onak”

“Gaur egun daukagun arazoetako bat da, haur askok kanpotik agindu ezean, ez dakitela zer egin. Egun osoa eta jarduera guztiak antolatuta edukitzera ohitu dira, eta azkenerako, galdu egin dute eurek zer egin nahi duten jakiteko gaitasuna”



gertu. Beraz, patioak belardi, baratze, parke... bihur ditzakegu. Horrekin batera, eskola barnean paretaren bat edo beste bota eta umei modu librean zirkulatzeko aukera eman diezaiekegu. Eta ondoren ikaskuntza beste modu batera planteatzen hasi behar dugu: “Hau da nire helburua eta hori lortzeko hau eta hau egin behar dute haurrek” pentsatu beharrean, zera pentsatu behar dugu: “Hau eta hori egiten dute haurrek, beraz, hau eta hura ari dira ikasten eta garatzen”.

Nik uste dut badagoela aldaketaren kontzientzia eta ari direla urratsak ematen. Hezkuntzaren helburua argi izanez gero —pertsonak formatzea—, eskola bakoitzak bilatuko du helburu hori lortzeko bidea nola egin. Eskolak daukan gauza onetako bat da komunitatearena dela, alegia, ez dela inoren jabetzakoa. Eskola ezin da administrazioarena izan, ezin da irakasleena izan, ez zuzendaritzarena, eta ezta jabetza pribatukoa ere. Hori bai, eskolaren helburuak ezin dira eztabaidan jarri, gero komunitateak erabakiko du helburu horiek lortzeko bidea nola egiten duen. Horretan guztian, noski, eskolen gestioa gertukoa izateak lagunduko lukeela uste dut. Kudeake-

ta horrek orain dena baino askoz ere lokalagoa izan behar luke.

Probatu, aldatu, berritu... egin behar dugu, hortaz.

Bai, baina badago beste arrisku bat ere. Orain berrikuntza modan dagoenez, mundu guztiak berritzen du. Aurreko batean egunkari batean zera irakurtzen nuen: “Eskola magistrala izan ezik, egin iruditzen zaizuena. Edozer gauza, baina eskola magistralik ez”. Eta hori arriskutsua da, eskola magistrala ere beste erreminta bat delako eta zenbait testuingurutan oso erabilgarria. Hortaz, ematen duenez berrikuntzaren aldeko sekulako mugimendua dago, baina beste alde batetik irakaskuntzaren helburuak ez dira zalantzan jartzen, eta egiatan, horixe da eztabaidatu beharrekoa. Zein da eskolaren egitekoa? Soldatapeko langileak produzitzea? Edota eskolaren egitekoa da ikasleei oinarritzeko heziketa ematea pertsonak onak, osoak eta kritikoak izan daitezen?

Testuinguru horretan zein izan behar luke irakasleen rola? Eta zein ezaguri izan behar lituzke zure ustez irakasle on batek?

Bokazioa da nire ustez garrantzitsue-

na. Eskolan nago eskolan egon nahi dudalako? Eta hemen nago beste inon ezingo nintzatekeelako egon? Bi galdera horiei “bai” erantzuten diona irakasle ona izango da. Beraz, nik uste dut irakaskuntza bereziki bokazioan oinarritu behar dela. Eta hortik aurrera bokazioak ekar lezakeen guztian: gogoberotasuna, pasioa, entzuteko gaitasuna, denbora guztian ikasten aritzeko nahia...

Eta nola egituratu irakasle eta ikasleen arteko harremanak? Ez ote dira boterean oinarritzen?

Iruditzen zait irakasle eta ikasleen arteko harremana asimetrikoa dela, irakasleok ikasleen gaineko ardura daukagulako. Eta ardura horri ezin diogu muzin egin. Hori bai, harreman asimetriko horren barruan, ikasleari espazioa eman behar diogu bere bidea egin dezan, alegia, iniziatiba hartu eta bere autonomia gara dezan. Izan ere, gaur egun daukagun arazoetako bat da, haur askok kanpotik agindu edo bideratu ezean, ez dakitela zer egin. Egun osoa eta jarduera guztiak antolatuta edukitzera ohitu dira. Goizean eskolan daude, eta irakasleak erabat gidatzen dizkie jarduerak, arratsaldean eskolaz

kanpoko ekintzak dituzte eta horietan gauza bera, eta azkenik etxean gurasoek esaten diete uneoro zer egin behar duten. Hortaz, azkenerako, galdu egiten dute eurek zer egin nahi duten jakiteko gaitasuna. Beraz, oreka bilatu behar da irakasleak gidatutako iniziatibaren eta umeak berak egin nahi duenaren artean.

Autoritate berri bat eraiki behar lukete irakasleek?

Autoritatea behar dugu, baina jada ez digu *Generalisimoaren* autoritateak balio. Gaur egun, autoritatea pertsona osoek daukate, hemen zergatik eta zertarako dauden dakiten pertsonak. Heldutasuna duten pertsona erferenteak behar dituzte ikasleek, oso infantila den gizarte batean bizi baikara. Beraz, autoritate hori zerk ematen du? Pertsona osoa izateak, hankak lurrean dituen, esperientzia duena, balentria-duna, adoretua... Uste dut irakasleok gehiegixko funtzionalizatu garela eta iruditzen zait tekniko baino gehiago egile, sortzaile izan behar dugula. Garen horren eta egiten dugun horren sortzaile. Hezkuntzaren artisau-ikuspegia aldarrikatuko nuke nik, eta ez horrenbeste fabrikako produkzioaren ikuspegia. Izan ere, heztea ez da prozesu produktibo bat, ezta zientzia bat ere, heztea arte bat da.

Heziketa berdearen gaian sartuz, zure esanetan, aire zabalean jolastea eta naturarekin kontaktua edukitzea haurren oinarritzko eskubide bat izan behar litzateke. Haurrak etxean zein eskolan "atxilo hartuta" bezala daudela ere salatzen duzu. Zergatik da garrantzitsua aire librean jolas egitea eta naturarekin harremana izatea? Eta eskolak nola lagun dezake horretan?

Hasteko eta behin, haurren osasun fisikoa aipatuko nuke. Inoiz ez ditugu eduki horrenbeste ume obesitate, miopia, alergia edota arnasa hartzeko arazoekin. Arazo psikologikoak ere — estresa, antsietatea, depresioa... — gero eta nabarmenagoak dira. Ezin aipatu gabe utzi garapen psikomotorrarekin zerikusia duten arazoak ere, hala nola, hiperaktibitatea, kontzentratzeko zailtasunak, edota irakurtzeko eta idazteko zailtasunekin zerikusia

duten arazoak. Naturarekin kontaktua edukitzeak eta aire librean jolasteak arazo horiek gutxitu egin ditzakeela dioen hipotesi bat badago eta ni bat nator hipotesi horrekin. Giza espeziearen eboluzioan mugimendua oso lotuta egon da garunaren garapenarekin eta gizakiaren gaitasunekin. Horrexegatik diot haurrek ez dituztela jostailu konplexuak eta objektu gehiegi behar, baizik eta jolaserako espazioa behar dutela, naturarekin kontaktua, berdinkideekin harremana, jolas librea, eta intimitaterako uneak. Eta beti ezin dute helduaren begiradapean eta hark gidatuta ibili.

Baina gaur egun errealitatea bestelakoa da. Historian zehar inork lortu ez duena, azken urteetan pantailek lortu dute: orduak eta orduak ematen dituzte haurrek geldirik, mugitu ere egin gabe pantailen aurrean. Eta hori baino gauza antinaturalagorik ez dago. Umeek egun guztia eserita pasatzen dute eta mugimendu falta hori izan litekeen gauzarik txarrena da haurrentzat, mugitzea jatea edo lo egitea bezain garrantzitsua delako haientzat.

Pantailak haurren izateko modua aldatzen ari dira, hortaz. Oro har, zein eragin ari da izaten teknologia haurrengan? Nola erabili etapa ezberdinetan baliagarria izan dadin?

Teknologiarekin daukagun arazo nagusia da teknologiaren atzean negozio izugarria dagoela. Hortaz, gai honi lotuta, galdera bat izan behar dugu beti presente: Zergatik erosten ditugu ordenagailuak ikasleentzat? Zenbait enpresak negozioa egiteko premia dutelako eta administrazioa presionatzen dutelako ordenagailuak eros ditzaten? Edota benetan haurrek ordenagailu horiek behar dituztelako? Kontu hori mahai gainean jarri behar dugu. Diskurtso pedagogikoa, politikoa eta ekonomikoa bereizi egin behar ditugu, eta gauzak argi esan.

Behin hori esanda, niri, adibidez, behin baino gehiagotan galdetu didate ea hiru urteko umeek tabletarik behar duten. Nik beti esaten diet hiru urteko ume batek dituen premien zerrenda egiteko eskatuko balidate, tableta ez nukeela jarriko ezta azken postuan ere. Izan ere, hiru urteko haur batek denbora behar du korrika egiteko, landareak

“Heztea ez da prozesu produktibo bat, ezta zientzia bat ere; heztea arte bat da”

“Historian zehar inork lortu ez duena, azken urteetan pantailek lortu dute: orduak eta orduak ematen dituzte haurrek geldirik, mugitu ere egin gabe pantailen aurrean. Hori baino gauza antinaturalagorik ez dago. Umeek egun guztia eserita pasatzen dute eta mugimendu falta hori izan litekeen gauzarik txarrena da haurrentzat, mugitzea jatea edo lo egitea bezain garrantzitsua delako haientzat”

“Umeak beste kideen sekulako beharra du, taldearen premia du, pertsonok besteekin harremanean eraikitzen garelako”



ukitzeko, arearekin ibiltzeko, urarekin jolas egiteko, gurasoei musu emateko, jateko, lo egiteko... hori guztia egin behar badu, ez dauka tabletarekin ibiltzeko astirik. Hortaz, hiru urteko haur bat tabletarekin baldin badabil, egiteko premia duen beste zerbait egin gabe ari da uzten.

Baina gaurko umeen errealitatearen parte dira tabletak, mugikorrak eta ordenagailuak... horrekin jaio dira...

Natibo digitalez asko hitz egiten da. Badirudi gu immigranteak garela, eta gaurko haurrak natiboak direla. Baina hori ez da hala. Ez dut uste pertsona bat natibo digitala dela esan daitekeenik teknologia horren atzean zer dagoen ulertzen ez badu. Adin batetik goragoko umeekin landu daiteke ordenagailuen funtzionatzeko logika zein den, nola dauden barrutik eginda, prozesadore bat muntatzen ikas daiteke... eta hori bai, hori bada teknologia ulertzea eta natibo digitala izatea, baina umerik gehienak ez dira horretarako gauza. Kontua zein da? Teknologia-enpresek oso ondo dakitela gizakiaren garunaren eta instintuaren jokabideak nolakoak diren, eta beraz, edonork oso modu errazean erabiltzeko moduko gailuak sortzen dituztela. Eta horrexe-

gatik, haurrak gailu horiek txikitatik erabiltzeko gai dira, baina horrek ez du esan nahi natiboak direnik. Izan ere, natiboak balira eurek egingo lituzkete programak eta eurek muntatuko lituzkete ordenagailuak. Eta hain zuzen ere, iruditzen zait gaurko ikasleek ordenagailuen atzean dagoen logika eta funtzionatzeko modua ikasi behar luketela. Alegia, teknologia eraikitzen ikasi behar lukete, eta ez soilik erabiltzen.

Eta, teknologiaren erabileraren fasean bagaude, zein irizpide izan ditzakegu kontuan?

Teknologiak gure bizitza zabaltzeko balio baldin badigu, nire ustez, ona da. Aldiz, gure bizitza mugatzen eta txikitzen badigu, txarra. Adibidez, Atlantikoaz bestaldean bizi den nire senide batekin komunikatzeko Skype erabiltzeak mesede egiten badit nire harremanetan eta plazera ematen badit, bada, ona da niretzat. Gauza bera gertatzen da jakintzaren arloan ere. Teknologiak jakintza zabalagarako atera irekitzen badit, hori onuragarria da. Gertatzen dena da jakintza zabalago horretan sartzeko, lehenik, ezagutza konkretua eduki behar dudala. Hortaz, teknologiak zuhaitz batekin harreman

zuzena edukitzea eragozten badit, eta denbora guztian zuhaitzak pantailan ikusten aritu behar badut, orduan, bistakoa da, ezagutzeko eta harremanak izateko nire gaitasuna mugatzen ari dela. Edota, Facebook-en 4.000 lagun baldin badauzkat, baina gero kalera jolasera jaisteko lagunak falta bazaizkit, teknologia ez da ona niretzat, harremanak izatea, komunikatzea eta sozializatzea eragozten ari zaidalako. Horrexegatik, nire ustez oso aberasgarria da eskoletan teknologiaren inguruko eztabaida egotea: Teknologia, zertarako? Noiz bai eta noiz ez? Nola? Irakasle eta eskola bakoitzak erabaki behar du bere irizpidea. Ezagutza pedagogikoa eta autoritate pedagogikoa edukitzea deitzen diot nik horri.

Eskola eta irakasle bakoitzak bere jardun pedagogikoa nolako izango den erabakitzeke autonomia behar duela aldarrikatzen duzu. Edozein kasutan, aholku orokorrik emango zenieke?

Gaur egungo ikasgela askok umeak zentzumenen mundutik isolatzeko zentroak ematen dute, eta hori oso kaltegarria da umearen ongizaterako eta garapenerako. Zentzu horretan iruditzen zait eskolak ikaskuntza baino lehenagokoa den kontzeptu bat bereganatu behar duela: ongizatearen kontzeptua, hain zuzen. Izan ere, umea ondo badago ikastea berez sortuko da. Alegia, ikaskuntza ongizatearen ondorio bat dela esan dezakegu. Ondo dagoen umeak, berez ikasten du, uneoro ari da ikasten. Izan ere, haurra bera da bere pedagogorik onena. Umeak oso ondo daki zer ikasi behar duen, baina horretarako ondo egon behar du.

Umeek 12-14 urtera iritsi arte, egunean 2-3 orduz hizkuntzak edo matematikak lantzeko laguntza apur bat edukitzearekin nahikoa dute. Eskolako 2-3 ordu horiekin eta gainontzeko denbora guztia euren kasa jolasean igaroz oso ondo garatuko dira. Adin horretatik aurrera kontuak bestelakoak dira. Izan ere, garuna garatuago daukate eta jada prest egongo dira kulturarekin, historiarekin, soziologiarekin kontaktuan sartzeko, baina ordura arte, beste ezerean aurretik, lurrarekin egin behar du lotura hori. Gero etorriko da kulturarekin eta gizartearekin atxiki-

tzeko garaia.

Baina umeei denbora luzez euren kasa jolasean uzteko —are gehiago kalean edo naturan— beldur handia dago: min hartuko duten beldurra, besteren batek kalte egingo dien beldurra, elkarrekin haserretuko diren beldurra, norbere haurra jazarria izango den beldurra, etxerako lanak egiteko astirik izango ez duten beldurra, etorkizunerako behar bezala prestatuko ez diren beldurra...

Bai sekulako beldurra dago, arrazoi sozialengatik, kulturalengatik eta baita ekonomikoengatik ere. Badago *beldurraren negoziua* deiturikoa ere eta horrek dirua mugitzen du. Baina kontziente izan behar dugu segurtasuna ez dela pasiboa, baizik eta aktiboa dela. Segurtasuna bestearekin harremanean norberak eraikitzen duen zerbait da. Gaur egun uste dugu etxean seguru egoteko alde guztietan kamerak jarri behar ditugula, poliziek kontrolatuta eduki gaitzaten. Baina hori ez da seguru egotea. Etxe inguruan seguru egongo gara gure bizilagunak ezagutzen ditugulako eta haiekin konfiantzazko harreman bat eraiki dugulako, alegia, komunitate baten baitan segurtasunezko eremu bat sortu dugulako. Hortaz, segurtasun pasiborik ez da existitzen. Eta beste horrenbeste gertatzen da haurren kasuan ere. Niri 11-12 urte inguruko haur batek baino gehiagok zera esan dit: “Arrisku guztietatik babestu nahi gaituzte, eta gauza mordo bat ikastea eragozten ari zaizkigu”. Haur bat ez da seguru egongo kaskoa eta belaunetakoak jartzen dizkiozulako erortzean minik hartu ez dezan, baizik eta seguru sentituko da erortzen ikasten duenean eta erortzen dakiela sentitzen duenean. Alegia, norbera bere buruaren gaineko ardura hartzen doan heinean sentitzen da seguru. Beraz, gure haurrak modu pasiboan babesten ditugunean, funtsean, erabat babesgabe ari gara uzten. Haien ordeztu helduok egiten ditugunean hainbat gauza, edo eurek arriskurik izan ez dezaten ezer egiten uzten ez diegunean, egiatan, ez gataizkie ari inolako mesederik egiten, euren burua babesteko inolako estrategiarik ez baitute garatuko.

Beldurraren kultura horrek zer-

nolako eragina du eskoletan?

Ni asko kezkatzen nauen kontua da, adibidez, jazarpenarena. Duela gutxi eskola batean patioen gaia ari ginen lantzen. Patio bat zeukaten “handientzat” eta beste bat “txikientzat”. Txikiak ez ziren inoiz handien patioa joaten eta zergatik galdetu genienean zera esan ziguten: “Handienera joaten bagara, akaso min emango digute”. Eta zein ondorio du horrek? Bada, bi haur eskolako patioan txakurkumee-tara jolasean hasten badira, alegia, borroka-jolasean, helduok segituan jolasa eteten diegula eta esaten diegula, “ez, hori ez, min hartuko duzue eta”. Eta jolasa moztzen diegu.

Horrek guztiak asko kezkatzen nau ni. Izan ere, gure haurrak naturatik erabat urrunduta eta bakartuta egoteaz gain, taldetik ere bereizita daude. Gaurko umeek ez dute taldea bizitzen. Ez dakite talde naturala —adin diferentetako umeak elkarrekin ibiltzea— esperimentatzea zer den. Adinka sailkatuta dauzkagu eta beldurra ematen die zaharragoekin ibiltzeak, akaso, min emango dielako, ez dute txikiagoekin ere jolastu nahi, badaezpada... baina zer da hau?

Nik badakit jazarpen kasuak badaudela eta horiei konponbidea ematen saiatu behar dugu, baina fokua jazarpenean jartzea akatsa iruditzen zait. Pedagogian gabiltzanok ondo ezagutzen dugu Pigmalion efektua, eta fokua non jarri, hura indartzen dugu askotan. Alegia, tratu txarrez eta jazarpenaz soilik hitz egiten badugu, negatiboak bakarrik, huraxe ikusiko dugu alde guztietan. Beraz, oso garrantzitsua iruditzen zait tratu onaz ere hizketan hastea, positiboan. Izan ere, tratu txarrez soilik hitz egiteak umeak taldetik ateratzera garamatza, taldea arriskutsua eta kaltegarria dela uste baitugu, eta ondorioz, gure haurrak bakartu egiten baititugu. Kontuan izan behar dugu, ordea, umeak beste kideen sekulako beharra duela, taldearen premia duela, pertsonok besteekin harremanean eraikitzen garelako.

Badago asko gustatzen zaidan budista bat: Thich Nhat Hanh. Hark dio gizakia *intergizakia* dela. Hau da, gizakiak ez daukala izate propiorik, baizik eta izatea duela beste gizakiekin, animaliekin eta landareekin harre-

manean dagoen heinean. Hortaz, guk umeak ingurukoekin duen harreman hori moztu egiten badugu harentzat kaltegarria izango delakoan, pentsa zer astakeria ari garen egiten!

Pertsonen komunitatearen beharra dutela diozu. Zabal dezakezu ideia hori?

Kontzientzia zabaltzearen ideiarekin lotzen dut nik hori. Alain Touraine soziologo frantsesak dio gaur egungo Mendebaldeko gizakia bakarrik dagoela eta bere burua besarkatuta bizi dela. Baina gizakion psikea ez dago horrela bizitzeko prestatuta, baizik eta beste pertsonekin eta ingurumenarekin harremanean bizitzeko dago eginda. Lotura horiek, askotan ikusezinak dira, baina hor daude. Adibidez, arnasten dugun airea landareetatik jasotzen dugu eta atzera ere bota egiten dugu, guk erabili ondoren, landareek aire hori garbi dezaten. Ez gara konturatzen baina hor oso lotura estuak egiten dira guztion artean eta horrek osotasun bat ematen digu izaki bezala. Beraz, gure izatea norbere burura soilik mugatze hori askorentzat gaur egungo bakardadearen eta ondoez psikiko askoren arrazoietakoa bat izan daiteke. Gure kontzientzia, izatez, askoz ere zabalagoa delako, komunitate osoa hartzen duelako bere barne eta baita natura bera ere.

Norbanako bezala garatzearen eta komunitateko kide gisa bizitzearren artean oreka bilatu beharko da, hortaz. Eskolak zer egin dezake horretarako?

Azken urteetan sekulako indibidualismoa bizi izan dugu. Sistema kapitalistaren eskutik etorri da indibidualismo hori, baina gu guztiok izan gara horren parte. Izan ere, gizarte tradizionalen kontzientzia kolektibo hori askorentzat itogarria ere izan da. Kontua da, beste muturrera joan garela: komunitatea kartzela gisa bizitzetik indibidualismoa askatasun oso gisa bizitzera igaro gara. Orain oreka bilatzea dagokigu: pertsona norbanako oso izan dadin eta aldi berean giza komunitatearen nahiz komunitate naturalaren parte senti dadin. Oreka lortzea ez da erraza, baina nahitaezkoa da, baldin eta bizitza onak eduki nahi baditugu.

ESPERIENTZIAK

ARRETA GOIZTIARRA SANTO TOMAS LIZEOAN

Prestakuntza, zailtasunetan dauden haurrei erantzuteko benetako tresna

“Hezitzaile izatea oso erantzukizun handiko lanbidea da; ez da objektu batzuekin aritzeko teknika bat, ez. Pertsonekin egiten da lan; batzuetan, zailtasunak dituzten pertsonekin, sufrimendu handia pairatzen duten pertsonekin. Eta guk, hezitzaile garen aldetik, ezin dugu edozein modutan lan egin: ondorio positiboak edo ondorio latzak izan ditzake guk egiten dugunak. Ez da metodologia kontua; ez da protokolo kontua. Pertsonen arteko gauza bat da”. Alvaro Beñaran psikomotrizistaren hitzak dira. Arreta goiztiarrean lan egiten du, benetako arreta goiztiarrean. Horri buruz aritu zen Hik Hasik azaroaren 4an eta Sean Bilbon eta Donostian gai horri eskainitako jardunaldietan. Eusko Jaurlaritzak indarrean jarri berri dituen protokolo eta dekretuen gainera, pertsonen arteko harremana eta lankidetzak daude, eta horietan oinarritzen da psikomotrizistaren iritzi arreta goiztiarra. Printzipio horiei jarraituz egiten du lan Donostiako Santo Tomas lizeoan. Hango esperientzia azaldu zuen.

Haurrak beren osotasunean etortzen dira eskolara, euren zailtasun eta guzti. Beraz, hezitzaileek ezin dituzte utzi zailtasun horiek hezkuntzatik kanpo, “kanpoko esekilekuan”. “0 urtetik 6ra bitartean, globalak dira haurrak; haurra bere mugimenduarekin, bere afektuekin eta bere adimenarekin dator eskolara, eta, hiru urte ingururekin hitza agertu arte, eginez adieraziko du hori guztia, jolastuz eta ekintzaren bidez. Egiten dutenaren bitartez, gorputzaren bitartez eta harremanen bitartez kontaktuko digute haurrek nola dauden, zer gertatzen zaien, zer nahi duten, zer ezin duten”. Hori guztia interpretatzeko, tresna bat behar du hezitzaileak, metodologia, protokolo eta dekretuen gainera: prestakuntza. “Hezitzaileok geuk hasi behar dugu 0-6 adin-tarteari eta, batez ere, 0-3 tarteari garrantzia ematen, gizarte honek justu alderantzizkoa egiten du eta. Guk eman behar diegu garrantzia bai etapa horri eta bai etapa horretan lan egiteko hezitzaileok behar dugun prestakuntzari”.

Santo Tomas lizeoan, baliabideak bilatzen hasi ziren galdera honen aurrean: zer egin dezakegu zailtasunak dituzten haurrei erantzuteko? Beñaran ez da Santo Tomas lizeoko langilea; psikomotrizista-lanak betetzera joaten da astean hiru egunetan. Bi, hiru eta lau urteko haurrekin lan egiten dute, eta haiei zuzenduriko laguntza-sistema bat eraiki dute, psikomotrizitatearen bitartez. Beñara-

nek ez du terapiarik egiten eskolan: “Hasieran, mundu terapeutikoa sartu genuen ikastolan, adin guztietako haurrekin. Baina, urteak pasatu ahala, konturatu ginen ezetz, gauzek beren lekua behar dutela. Terapia terapia da, eta eskola eskola da”. Hezkuntz-laguntzako sistema bat osatu zuten, prebentzio-proiektu bat, adin txikienekoentzat, bi urteko haurrentzat.

Zailtasunak dituzten haurrei eta haien familiei laguntzea da proiektuaren helburua. Haurrei dagokienez, zailtasunak hautematea eta erantzuna bilatzea da helburua, eta, familiei dagokienez, familiari gaitasuna ematea eta ez blokeatzea; euren haurrekin harreman egokiak ezartzeko gai direla sentiaraztea. “Ezin diogu familia bati esan: ‘Zure haurrak zailtasunak ditu, eta agur, konpondu zuen kasa’. Ez. Guk printzipio bat daukagu: familiari ezer esan baino lehen, zailtasunak dituen haur horren familiari zer-nolako bidea proposatuko diogun jakin behar dugu guk. ‘Zure haurrak zailtasunak ditu, eta laguntzeko hau eta hau egin daitezkeela pentsatu dugu’. Horrekin lotuta, beste printzipio bat ere badugu: egia esan behar dela uste dugu, ez direla gauzak ezkutatu behar; baina hori nola egingo dugun kontu handiz zaindu behar dugu. Familiarengan gehiegizko larritasuna sor dezakeen gaia baita”.

Familia batzuen kasuan, eskolan esango diete lehen aldiz euren semeak edo alabak zailtasunak dituela.



“Desberdina da haur bat eskolara bideratuta etortzea (gurasoek badakite zailtasun bat dagoela), edo zerotik etortzea, ezer jakin gabe, eta gu izatea familiari lehen aldiz haurraren zer ikusi dugun esan behar diogunak. Familia horrentzat, heriotza sinboliko bat esan nahi du guk esango diogunak. Guraso guztiok ditugu seme-alabekiko espektatibak eta esperantzak, helburuak, proiektuak, asmoak, ametsak; eta, bat-batean, zera esaten dizu norbaitek: ‘agian, murriztu egin behar dituzu zure ametsak; zure espektatibek ezin dute izan zuk nahiko zenituzkeenak’. Zerbait hiltzen da hor; heriotza bat dago”. Heriotza horren aurrean, dolu bat pasatu beharko du familiak, eta, Beñaranen arabera, bereziki sentiberak izan behar dute profesionalak une horretan; “gertatzen denarekin enpatizatu egin behar dugu”.

Ukazioa izango da albistea jaso duen familiaren lehen erreakzioa. “Ez, ez, ez; hau ez da posible; oker zaudete, nire haurrak ez du horrelakorik; nire haurra normala da; hori ez da posible”. Eta proiektzio bat dakar ukazio horrek, Beñaranek azaldu zuenez, proiektzio agresibo bat: “Eraso bat da niretzat nire haurrak zailtasunak dituela esatea, eta

gaizki sentitzen naiz; eta aurpegiratu egingo dizut hori”. Familia batzuen erreakzioa, espezialistak azaldu zuenez, eraso egitea izan ohi da. Ukazio hori erreakzio arrunta dela azaldu zien Beñaranek hezitzaileei: “Argi izan behar dugu familia horrek ez duela hori egiten pertsonalki gure kontra dagoelako, ez; erreakzio emozional logikoa da, heriotza sinboliko horrekin eta doluarekin zerikusia duena”. Familia hori minduta dagoela jakin behar dute hezitzaileek, eta, gainera, errudun sentitzen direla askotan: “Nire haurrak zailtasunak baditu, nik zerbait gaizki egin dudalako da”. Gurasoek lehen une horretan sentituko duten segurtasun-faltaren berri eman zien hizlariak entzuleei: “Halako egoeren aurrean, oso garrantzitsua da une hori prestatzea. Horregatik pentsatu behar dugu zer egin, zer esan, nola esan, nork esan, non esan, noiz esan, zertarako esan. Eta, gauza horietarako guztietarako, interesgarriak dira protokoloak, bai, eta metodologiak, eta argi edukitzea zeinek esaten duen, zer esaten duen, nola esaten duen, nola prestatzen den bilera hori... Haur batek zailtasunak dituela argi dugunean, prestatu egin behar da lehen bilera hori. Noiz izango da? Nor egongo da bilera ho-

rretan? Zertarako esango diegu hori? Kontua ez da guk dakiguna esatea, ez; kontua da hori zerbaitetarako esatea; zerbaitetarako biltzen gara gurasoekin, lagungarri izateko”.

Espezialistaren rola dauka Beñaranek Santo Tomas lizeoan. Bi urteko haurren egokitzapenari buruzko lehen bileran ezagutzen dute gurasoek psikomotrizista. Ondoren, behaketa egiten du bi urteko haurren geletan. “Egokitzapen-garaian hasten da behaketa; gurasoak hurrekin gelara etortzen direnean, orientatzailea eta biok egoten gara han. Adibidez, gorputza aztertzen dugu, zer gorputz ikusten diren, zer mugimendu ikusten diren haur horienengan, zer egiten duten haur batzuek, zer-nolako harremanak sortzen dituzten haur horiek besteekin, beren gurasoekin, helduekin, espazioekin...”. Eta, jada une horretan, gauza deigarriak agertzen dira. “Oharrak hartzen ditugu, baina ez dugu ondorioz ateratzen; aurreiritzi gehiegi ez izaten saiatzen gara.” Egokitzapenaren ondoren, gelaz gela joaten da, eta behaketa egiten du; andereñoarekin hitz egiten du, ea beste haurren bat aztertzeko premiarik ikusten duen jakiteko. Lehenengo hiruhilekoa behaketa egiteko eta informazioa biltzeko izaten da Santo

ESPERIENTZIAK: ARRETA GOIZTIARRA

Tomas lizeoan.

“Pixkanaka, gure arreta erakartzen du haur batek edo bestek: mugitzen ez den honek, gehiegi mugitzen den beste horrek, jolasten ez den hark, hitz egiten ez duen halakok... Eta gauza horiei erreparatzen diegu pixkana”. Haurren inguruko informazioa bildu ostean, familia jakinaren gainean dagoen ala ez ikusten dute; horretarako, garrantzitsua da gurasoek andereñoarekin egiten dituzten bileretan informazioa ematen duten edo ez ikustea.

Zailtasunak dituzten hurrei eta haien familiei laguntzeko, psikomotritzitatea erabiltzen du Beñaranek Santo Tomasen. Horretarako, ordea, gurasoen adostasuna behar dute lehenik: “Ez ditugu haurrak hartzen, gurasoek nahi ez badute. Batzuetan, gertatu izan zaigu gurasoek gu sartzetik ez nahi izatea, eta errespetatu egiten dugu guk hori. Itxaron egiten dugu. Esan bai, esaten diegu zer ikusi dugun eta zer izan daitekeen gure ustez lagungarri haur horrentzat; baina gurasoen esku dago onartzea edo ez onartzea”. Baiezkoa eman duten familien haurrekin, bigarren hiruhilekoan hasiko dira lanean. Bi, hiru, lau edo bost hurreko talde txikiak egiten dituzte, haurren ezaugarrien arabera.

Baina kasu batzuk ezin dira bideratu eskolan, edo ez da aski eskolako tartearekin, eta kanpora bideratu behar izaten dituzte. “Kanpora bideratzen

direnean, arlo publikora eta pribatura jo daiteke. Gipuzkoan, behintzat, oso gogorra egiten zitzaigun zenbaite-tan arlo publikoan lan egiten duten lekuetara bideratzea. Aukera hauek genituen: Gautena: autismoa; ASPACE: garun-paralisia; eta, bestela, haurpsikiatria. Oso gogorra da gurasoak horietara bideratzea. Ez zen erraza lehen pauso arinago bat ematea”. Horregatik, urteen joanean, konfiantzazko bulego pribatuaren sare bat osatu dute. “Baina arazo bat dago hor ere: ordaindu egin behar da pribatua”.

Hezitzaileen prestakuntza

Haurrak eta familiak bezala, hezitzaileak ere oso kontuan izaten ditu Beñaranek Santo Tomas lizeoko esperientzian. “Baliabideak eman behar zaizkie hezitzaileei. Batzuetan, hezitzaileak esango die gurasoei zer ikusi dugun, eta oso zaila, delikatu eta kontuz egitekoa da zeregin hori. Haiek azaltzen diete ikastetxean zer laguntza dauden ere”. Hezitzaileei lasaitasuna ematea da Beñaranen zereginetako bat: “Ez dakigu guraso horiek nola erantzungo duten; oso gaizki hartuko dute agian, eta hezitzailearen kontra jo dezaketela argitzen diet. Gurasoen mugimendu emozional hori ulertzeko prestatzen ditugu irakasleak, ez baitauka zerikusirik hezitzailearekin berarekin, pertsona horrek une horretan ordezkari

tzen duen rol sinbolikoarekin baizik”.

Egoera zail horiei erantzun egokia emateko, argi dauka Beñaranek zer tresna behar duen irakasleak: prestakuntza. “Prestakuntza handia behar da 0-6 adin-tartean, 0-3 adin-tartean bereziki, pertsonekin ari garelako lanean; areago, zailtasunak dituzten pertsonekin. Emozio horiek gainera botako dizkigute, eta prest egon behar dugu guk horiek onartzeko eta borrokan ez sartzeko. Prestatuta ez banago, kontraerasoan has naiteke, eta familiaren kontra jar naiteke. Profesional garen neurrian, egoera horretatik irteten jakin behar dugu, gure helburua haurrari eta familiari laguntzea baita, beren haurra ulertzen laguntzea, eurek ere euren haurrari lagundu ahal izateko, eta ez arazoia edukitzea”.

Hitzaldiaren goiburutik, benetako arreta goiztiarrari eman zion garrantzia Beñaranek. “Protokolo eta dekretuen gaineratik, hezitzaile bakoitzak zailtasunak dituzten hurrei ematen dien erantzuna da garrantzitsua; ez dugu pentsatu behar protokoloek ezer egingo dutenik, eskalek esango digutenik nolakoa den haur hori, ez. Zer egin dezaket nik, nire lekutik, haur horri laguntzeko?”.

Hizlariaren arabera, hezitzaileak ez du eskolan arreta goiztiarreko espezialista izan behar, “baina bai kalitate oneko heziketan espezialista; harreman eta giro bikainak sortzeko



prestatu behar dugu, haurrak seguru senti daitezen”. Konfiantzazko giro orokor hori sortzen denean, zailtasunak dituzten haurrek ere nabarmen egin dezaketela hobera azaldu zuen: “Kalitate oneko heziketak lan handia egiten du prebentzioan eta zailtasunak gutxitzen”. Psikomotrizistarentzat, oso garrantzitsua da hezitzailea egitura baten barruan sentitzea: “Hezitzaileak ez luke bakarrik egon behar; hezitzaileak bere lekua betetzeko, beste batzuek euren bete behar dute. Eta, gero bai, elkarlanean jardun behar dute, bakoitzak bere lekutik”.

Haurra detektatuta dagoenean

Lehenengo, haurrak eskolara detektatu gabe iristen diren egoerak aipatu zituen Beñaranek. Baina gertatzen da, baita ere, haurrak bideratuta edo detektatuta iristea ere. Arreta goiztiarraren sisteman dauden haurren kasuan ere, bada zer hobeturik, Beñaranen hitzetan: “Eskolara arreta goiztiarreko zerbitzuan dabilen haur bat eta familia bat etortzen direnean, kasua azaldu beharko liguke norbait. Kalitate oneko heziketa garatu ahal izateko, koordinatuta jaso behar dugu informazioa”. Bada, zer-nolako informazioa jaso behar du eskolak, arreta goiztiarreko zerbitzuan dabilen haur bat eskolara iristean? “Asko zaindu behar dugu informazioa; lagungarri delako emango da beti, eta informazio hori erabiliko duenari modu egokian eta profesionalki erabiltzeko emango diot; ez diot edozeini emango. Isilpekotasunak leku garrantzitsua bete behar du eskoletan, eta baita koordinazioak ere. Profesionalen artean koordinatuko bagina, sufrimendua kenduko genieke familiei. Zehaztuta eduki behar dugu eskolara nor etorriko den informazioa ematera; informazio hori nork jasoko duen eskolan, hezitzaileak, orientatzaileak, Berritzegunekoak... Bakoitzak zer funtzio betetzen duen jakin behar dugu; pertsonen izenak jakin behar ditugu; zailtasunak dituen haur bat dugunean, eskolan norengana jo behar dugun jakin behar dugu, eta zer baliabide ditugun”.

Erdibideko kasuak ere gertatzen dira: haurrak bideratu gabe egona-

gatik, gurasoak jakinaren gainean egotea. “Eskolan, oso egoera desberdinak aurkituko ditugu, eta argi izan behar dugu egoera horiek guztiak daudela, eta ezin dugula egoera guztietan berdin jokatu. Eta gure jarrerak eta gure hitzak egoeraren arabera egokitu beharko ditugu”. Haatik, haurrak zailtasunak dituela ohar-tzeak ez du esan nahi hezitzaileak eta espezialistak badakitenik haur horrek zer daukan. “Batuetan, esan behar da ez dakigula haurrak zer daukan, ez eta zer gertatuko den ere; baina elkarrekin lan egin dezakegu.”

Protokolorik behar izatekotan, segurtasun-protokolo bat aldarrikatzen du Beñaranek. “Printzipio bat daukagu guk gure lanean: haur batek, bere zailtasunak gainditzeko, segurtasuna lortu behar dugu haren baitan. Zailtasunak dituzten haurrengan ikusi ohi den indize baten arabera, haur horiek ez daude seguru, ez dira seguru sentitzen bizitzan, gaixotasun organiko batengatik, edo egoera traumatiko batengatik... Bere burua arriskuan ikusten du”. Horregatik, kontu handiz zaindu behar da nola hurbiltzen den eskola haur horrengana, zer estrategia erabiltzen dituzten hezitzaileek eta espezialistek, zer urrats egiten diren familiarekiko, seguru sentitzea baita helburua. “Zer gertatzen zaio segurtasunik gabeko familia bati? Blokeatu egiten da; seguru sentitzen bada, askatu egiten dira haren gaitasunak, eta haurrekin gauzak egitera ausartuko dira; bada-kite nola bideratu beren haurrekin harremana”.

Etorri diren protokolo eta dekretuen aurrean, mezu argi bat zabaldu zuen Beñaranek, bukatzeko: “Bete ditzagun protokolo horiek, bete ditzagun gizatasunez, bete ditzagun pertsonaz. Egin dezagun gure lana erantzukizunez. Metodologiek ez digute lana egingo; guk egingo dugu, eta pertsonekin ari gara hemen, ez objektuekin, ez makinekin. Gu ere pertsona gara, eta, horregatik, gure erresonantziez jabetu behar dugu; askotan, gaizki sentitzen gara, eta segurtasun-falta sentitzen dugu; ez dakigu beti zer daukan haurrak. Zaindu informazioa, zaindu haurra, zaindu familia eta zaindu zeuen burua”.

“Ezin diogu familia bati esan: ‘Zure haurrak zailtasunak ditu, eta agur, konpondu zuen kasa’. Ez. Guk printzipio bat daukagu: familiari ezer esan baino lehen, zailtasunak dituen haur horren familiari zer-nolako bidea proposatuko diogun jakin behar dugu guk. ‘Zure haurrak zailtasunak ditu eta laguntzeko hau eta hau egin daitekeela pentsatu dugu’. Horrekin lotuta, beste printzipio bat ere badugu: egia esan behar dela uste dugu, ez direla gauzak ezkutatu behar; baina hori nola egingo dugun kontu handiz zaindu behar dugu. Familiarengan gehiegizko larritasuna sor dezakeen gaia baita”

PEDAGOGO SORTZAILEAK

Emmi Pikler

Pedagogo sortzaileak izeneko monografikoa eguneratzen dihardu Hik Hasi egitasmo pedagogikoak, eta datorren ikasturtean emango du argitara edizio berritua. Hainbat pedagogo liburuxkan txertatu aurretik, ordea, *hik hasi* aldizkarian argitaratuko du haien inguruko informazioa, pedagogiako zein psikologiako adituen eta arituen eskurik. Emmi Piklerren inguruko ekarpen hauxe da zerrenda horretan lehena.

Emilie Madleine Reich, *Emmi Pikler*, Vienan jaio zen, 1902ko urriaren 9an. Aita hungariarra zuen, eta ama, berriz, austriarra. Ama (Emmik 12 urte zituela hil zen) haur-eskolako maistra zen, eta aita zurgina.

Budapesten igaro zuen haurtzaroa, 1908an familia hara aldatu baitzen, eta 1920an itzuli zen Vienara, medikuntza-ikasketak egitera eta pediatrian espezializatzerara.

Garai hartan, kulturaren, politikaren, zientziaren eta artearen esparruetan garatzen ari ziren korrante aurrerazaleen elkargunea zen Viena.



Juanjo Quintela

Psikologoa

Gauza bera gertatzen zen hezkuntza-
ren eta pedagogiaren esparruetan ere:
horren adibide ditugu Eskola Berria
(Decroly, Freinet, Montessori...) eta
Psikoanalisi bereziki.

1930ean, György Pikler pedagogo
aurrerazalearekin ezkondu zen, eta
haren ideiak oinarri hartu zituen bere
ibilbide profesionalean. 1931n izan
zuen lehenengo alaba.

Triesten urtebetez bizi ondoren,
familia Hungariara joan zen bizitzera,
1932an.

1935etik 1945era bitartean, familia-
pediatra gisa lan egin zuen, eta,
1946an, Hungariako gobernuak hala
eskatuta, ume abandonatuentzako
eskola bat sortu zuen, Loczy kaleko
3. zenbakian.

1979an erretiratu zen, Loczyren
zuzendaritza Judit Falk-en eskuetan
utzita, eta 1984ko ekainaren 6an
hil zen, gaixotasun labur baina larri
baten ondorioz.

**Nahitaezko erreferentea, 0 urtetik 3
urtera bitarteko haurren hezkuntzan
eta hezkuntzan: zergatik?**

Emmi Piklerren eta Loczyko ume-
zurtzen eskolako lankideen lana ez
zen ezagutu denbora luzean Mende-
baldeko Europan.

Varsoviako Ituneko partaidea zen
Hungaria, eta Sobietar Errepublikak-
ekin bat egiten zuten Europako he-
rrialde edo gobernuak biltzen zituen,
hain zuzen, itun horrek (“Altzairuzko
Oihaletik haragoko” herrialde gisa



Emmi Pikler.

ezagutzen ziren hemen). Horren ondorioz, zoritxarrez, hermetismoa edo komunikazio falta nabarmendu zen Ekialdeko Europaren eta Mendebaldeko Europaren artean.

Baina zerbait aldatzear zegoen...

1951. urtetik 1957. urtera bitartean, mundu osoan zehar jasotako datuetan oinarrituta, azterketa bat egin zuen J. Bowlby-k, txikitan (2 edo 3 urte izan arte) umezurztegietan edo beste mota bateko erakundeetan, hots, familia-giro normaletik kanpo, bizi izan ziren pertsonen buruz. Azterketaren ondorioa oso etsigarria izan zen, ikeritutako pertsona gehienek nahasmendu garrantzitsuak baitzituzten euren bizitzako hainbat alderditan (afektibo-emozionalean, harremanen arloan, arlo kognitiboan, lan-esparruan...).

Umezurztegitik irten eta familia batean bizi izan zirenetan ere agertzen ziren nahasmendu horiek, geroago bazen ere. Erakunde batean igarotako bi edo hiru urte horiek ziren, hain zuzen, horren kausa.

1963an, Margit Hirsch-ek antzeko azterlan bat, zabalagoa, egin zuen Hungarian, eta azterketa horren ondorioak Bowlbyk ateratakoen oso antzekoak izan ziren, eta haiek bezain etsigarriak...

Hala ere, maila zabalean egin ziren azterketetan, ikertzaile taldearen arreta bereganatu zuten hogeit bat haurrek. Erakunde batean bizi izandako haurrak ziren baina garapen egokia zuten: **Loczyn hazitako haurrak ziren guztiak.**

Emaitza harrigarri horien ondorioz, Hungariako Zientzien Akademiako Psikologia Institutuak beste ikerketa bat sustatu zuen 1964an: gutxienez 6 hilabetez eta gehienez 34 hilabetez Loczyn bizi izan ondoren, familia-giro normal batean bizitzera joan ziren 30 haur aukeratu zituzten ausaz.

Ikerketa horretan, 30 haur horietako inork ez zuela J. Bowlbyk eta R. Spitz-ek deskribatutako ospitalismo-sindrome berantiarrik egiaztatu zuten.

Zer gertatzen zen Loczyn?

Ohiz kanpoko zer egiten zen han, etxe horretan hazitako haurrek nahi-taezkoak zirela uste zen nahasmendu haiek ager ez zituzten?

Horrelako galderak edo antzekoak egin zituzten ziur asko Myriam David haurren psikiatrak eta Geneviève Appell haurren psikologoak, 1968an lehenengo aldiz Loczy bisitatu zutenean; harrিতuta gelditu ziren umezurtez-eskolan zegoen giroaz eta haurrek zuten itxura zoragarriaz.

Askok kezkatzen zituen Frantziako umezurztegien egoerak, eta, 1971n, Loczyra itzuli ziren, azterketa sakon bat egiteko helburuarekin.

Bigarren bisita haren emaitza izan zen, hain zuzen, 1973an argitaratu zuten liburua: *Lóczy ou le maternage insolite (Loczy edo ezohiko amatasuna; gaur egun eskuragarri dugu gaztelaniaz: *Lóczy, una insólita atención personal*, Octaedro argitaletxea)*

Lóczy ou le maternage insolite liburuari esker ezagutu zen Mende-

“Emmi Piklerrek sumatu zuen haurraren jardueran muturra sartzeko tentazioari eutsiz gero, haurraren ordeztzeko, aktiboki estimulatzen edo gauza bat edo beste egitera bultzatzeko tentazioari eutsiz gero, haurrak bere burua aktibatzen zuela jardueraz gozatuz, eta, gainera, konfiantzaz eta ausardiaz egiten zuela aurrera egunetik egunera”

“Ziur zegoen haur batek ez zuela heldu baten esku-hartzerik edo laguntzarik behar ahoz gora etzanda egotetik esertzera, zutitzera eta trebetasunez oinez ibiltzera igarotzeko”

baldean Emmi Piklerren eta, harekin batera, Loczy kaleko umezurtz-eskolan lanean ari zirenen lana.

Piklerren Hezkuntza Proiektuaren erakuntza progresiboa. Mugarriak

Pediatra bikain hark egin zuen lanaren eta Piklerren Hezkuntza Proiektuaren eraketaren lekuko izan dira XX. mendearen zati handi bat eta XXI. mendea.

Lehenengo mugarria, jakina, 1920ko hamarkadan Vienak bizi zuen aparteko giroan jasotako prestakuntza da. Pediatra-espezializazioa egiten ari zen Unibertsitate Ospitaleko eguneroko bizitzan ere nabari zen giro hura. Clemens von Pirquet maisuaren eta Hans Salzer haur-kirurgialariaren zuzendaritzapean egin zuen espezializazioa. Oso kontuan izan zituen luzaroan ospitalean hurrekin lan egiten zen modua eta hurrekiko jarrera. Hantxe eta garai horretan trebatu zen, hain zuzen, itzuli ondoren Budapest praktikan jarriko zituen printzipio haietan:

- Pediatriako zaintzak eta osasun-azterketak adeitasunez, maitasunez, egiten ziren, haurrekin enpatia-harreman bat sortuz, eta eskuetan bizirik zegoen eta sentikorra eta hauskorra zen haur bat zutela kontuan hartuta.
- Gaixorik zeuden haurrak ez ziren egun osoan ohean egotera behartzen; jolaserako bereziki prestatutako txokoetan jolasten ziren, baita txikienak ere.
- Bularreko haurren arropa ere ez ezohikoa: oinak ez zituzten bilduta, eta pixoihalak ere ondo erantsita eramaten zituzten, aske mugitu ahal izateko.
- Hurrek, baita bularreko hurrek ere, aire zabalean igarotzen zituzten egunean hainbat ordu balkoi txikietan, baita neguan ere, hotzetik ondo babestuta.
- Debekatuta zegoen koilarakada bakar bat gehiago ematea hurrei, baita bularreko haur gaixoari ere, gehiago ez zutela nahi adierazten bazuten.

Hasierako garai horretakoak dira, baita ere, motrizitateari eta umearen berezko jarduerari buruzko ideiak.

Emmi Piklerrek sumatu zuen haurraren jardueran muturra sartzeko tentazioari eutsiz gero, haurraren ordeztzeko, aktiboki estimulatzen edo gauza bat edo beste egitera bultzatzeko tentazioari eutsiz gero, haurrak bere burua aktibatzen zuela jardueraz gozatuz, eta, gainera, konfiantzaz eta ausardiaz egiten zuela aurrera egunetik egunera.

Horrez gain, ziur zegoen haur batek ez zuela heldu baten esku-hartzerik edo laguntzarik behar ahoz gora etzanda egotetik esertzera, zutitzera eta trebetasunez oinez ibiltzera igarotzeko.

• Bigarren mugarria 1930ean György Pikler pedagogoa eta matematikariarekin ezkontzea izan zen, eta 1931n haien lehenengo alaba, Anna, jaioz.

György Piklerrek ere partekatzen zuen emazteak haurraren garapenari buruz zuen interesa. Alabak garapen osasuntsu bat izan zezan beren esku zegoena egitea erabaki zuten biek, eta horrela, Emmi Piklerrek aukera izan zuen bere ikusmoldeak praktikan jartzeko: garapena ez bizkortzea, erritmo naturala errespetatzea eta haurraren beraren ekimenean konfiantza izatea, mugitzeko askatasuna eta jardura autonomoa sustatuz.

• Hirugarren mugarria 1935. urtetik 1945. urtera familia-pediatra gisa izandako esperientzia da.

Pediatra-lanari buruz zuen ikuspegia oso originala edo berezia zen garai hartarako (baita gaur egunerako ere): Emmi Piklerrek garrantzi handiagoa ematen zion haurraren familiari laguntzeari eta haurraren garapen fisiko eta psikologikoari, gaixotasuna sendatzeari baino.

Haurtxoen eta umeen familiak gutxiago esku hartzera eta gehiago behatzera gonbidatzen zituen, eta haur osasuntsu, aktibo, gai eta bakeatsu baten ikuspegia, bere buruarekin eta inguruarekin bakean bizi den haurraren ikuspegia, partekatzen zuen haiekin.

Astero joaten zen familien etxeetara, amarekin batera haurra behatzera, eta xehetasunei buruz, eguneroko gauza txikiei buruz eta gurasoen eta haurraren artean kalitatezko



Jutka Kelemen Budapesteko Pikler-Loczy haur-eskolako irakaslea, Hik Hasik 0-3 urte arteko hezitzaileentzat antolatzen duen bi urteko formazioan eskola ematen.

harremanean oinarrituta mugitzeko askatasunak eta segurtasunak duen garrantziari buruz hitz egiten zuen amarekin.

Horrela, pediatria gisa lan egin zuen 10 urte haietan, bere ideiak egiaz-tatu ahal izan zituen, eta saiakerak egiteko, aberasteko eta koherentziaz jositako printzipio multzo bat osatzeko aukera izan zuen.

- Laugarren mugarrria Emmi Piklerrek eta bere lankideek umezurtz-eskolan egin zuten lana da, 1946an sortu zenetik 2011ko udaberrian itxi zen arte egin zutena, alegia.

Emmi Piklerrek umezurtz-eskola bere kargu hartu zuenean, kezka bakarra zuen: haur bakoitzaren ongizate fisikoaz, afektiboaz eta psikikoaz arduratzea eta haur bakoitza ahalik eta hobekien garatzeko beharrezkoak ziren baldintza egokiak bilatzea. Gurasoekin lotura esanguratsu bat ez izateak eta erakunde batean bizitzeak sor ditzakeen gabezia dramatikoak ekiditea eta haurrei beren garapena babestuko zuen bizi-esperientzia bat eskaintzea zituen helburu.

Umezurtz-eskola horretan, bularrereko haurrak jaso zituen, eta haien

zaintza eta erakundeko bizitza antolatzen saiatu zen, familietan harmonia osoz hazten ikusi zituen haurrek zuten garapenaren ahalik eta garapen antzekoena izan zezaten.

Haurrei afektiboki lagunduta jarduerak garatzeko eta mugitzeko askatasun osoa eskaintzea oinarritzko printzipio zuen pedagogia garatu zuen Loczyn helburu horrekin.

Pediatria gisa izandako esperientzia zabal eta bereziaren ondoren, umezurtz-eskolak aukera paregabea eskaini zion, han lan egiten zuen taldearekin batera, ordura arteko aurkikuntzak sakontzeko, egiaztatzeko eta aberasteko.

Horrexegatik, hain zuzen –eta guretzat zorionez–, ikerketagune ere bihurtu zen Loczy ezinbestean, eta haurren garapenaren hainbat alderdiri buruzko behaketa sakonak egin ziren han. Ez zen ezer ausaz egiten, ezta hezitzaileen inprobisazioa ere. Guztia zehaztasunez pentsatzen, aurreikusten, aplikatzen, egiaztatzen eta ebaluatzen zen, helburu bakar batekin: haurrek taldearen barruan garapen harmoniatu edo orekatu bat izateko behar zituzten baldintza

egokiak sortzea eta lantzea.

Umezurtz-eskolako garai luze eta emankor horretan formulatu ziren esplizituki Loczyren Hezkuntza Proiektuaren oinarritzko printzipioak:

- Ekintza autonomoaren balioa.
- Harreman afektibo pribilegiatuaren balioa.
- Haurraren bere buruaren eta inguruaren kontzientzia-hartzea sustatu beharra.
- Osasun fisiko ona izateak duen garrantzia.

Osasun fisiko ona izateak duen garrantziari dagokionez, esan behar da, labur-labur, oinarritzko printzipioa dela beste hiru printzipioak zuzen aplikatzeko; baina, aldi berean, beste hiru printzipioak zuzen aplikatzearen emaitza ere bada.

Proiektuaren ezaugarri nagusietako bat aire zabalean ahalik eta gehien bizitzea da, egoera fisiko ona izateko.

Haurraren bere buruaren eta inguruaren kontzientzia-hartzea sustatzeko behar hori gertakizunen erregularutasunaren bidez eta egoeren egonkortasun eta aurreikuspenaren bidez bermatzen da. Zaintzako unee-

tan, batez ere, egiten da ahalegin handiena, harreman pertsonalizatuaren bidez, haurrari nor den, zer gertatzen zaion, nork zaintzen duen, zer egiten dioten eta berak zer egiten duen, zer inguru duen, gero zer gertatuko den eta beste hainbat alderdi ulertzen laguntzeko.

Ez da inoiz haurra objektu gisa tratatzen, eskubide osoa duen pertsona gisa baizik, eta txiki-txikitatik eta bera abiapuntu hartuta, haurrarekiko harreman guztietan haurraren parte-hartze aktiboa sustatzen da.

Har dezagun tartetxo bat gainerako printzipioak aztertzeko: **ekintza autonomoaren balioa, harreman afektibo pribilegiatuaren balioa** eta Piklerren proposamenen bien artean sortzen den harreman dialektikoa.

Bernard Martinok, *Loczy, hazteko etxe bat* filmaren egileak, honako gogoeta hau egiten du: “Loczyko funtzionamendu harmoniatsua erronka batean oinarritzen da; hauxe da erronka hori: pertsona batek eguneko une pribilegiatu batzuetan –zaintzako uneetan eta jatorduetan– haur batekin gogotsu eta eskusiboki jarduten badu, haurra guztiz aseko du harremanaren kalitateak, eta berehalaxe bere buruaz, bere inguruaz eta ingurukoez arduratzeko behar duen lasaitasuna izango du barnean”.

Idea bera azaldu zuen Chantal de Truchis-ek hitz hauekin: “Haur txiki batek konfiantzazko eta maitasunezko harreman batean bilduta dagoenean soilik garatuko du jardueraske... Zaintza-garaietan intentsitate handiz bizitzen diren truke-une horien ondoren, bere kabuz jarduteko aukera eskaintzen dion indarra bereganatzen du haurrak. Hazten doan heinean, gero eta denbora gehiagoan arituko da bere ekimenetik sortutako jardueretan”.

Bi printzipio horiek kontuan hartuta eta biak bat eginda, hainbat gogoeta ondoriozta daitezke:

- Nahitaez, pertsona arteko harreman egonkorra, jarraitua eta estua bermatu behar dira haurraren eta hark ongi ezagutzen dituen heldu batzuen artean (kopuruak mugatua izan behar du), eta harreman afektibo pribilegiatua izan behar

du erreferentziazko pertsona batekin.

- Zaintzak kalitatezkoa izan behar du, helduaren eta haurraren artean dagoen benetako harreman zintzoaren testuinguruan.
- Mugimendu askea eta haurraren jarduera espontaneo errespetatu behar dira. Haur guztiei, txiki-txikitatik, eskaini behar zaizkie beren barnetik sortzen den jarduera aske hori bultzatuko duten baldintza egokiak. Hauek dira baldintza horiek, bereziki:
 1. Heldu bat, zuzenean parte hartuko ez duena; bigarren planora “atzeratzen” dena, baina haurraren beharrei, ongizateari eta haurraren seinaleei begira dagoena.
 2. Haurrentzat prestatutako inguru egoki bat, aberatsa, segurua eta bakoitzaren eritimoa errespetatzen duena.
- Munduak egonkorra eta aurrerikuz daitekeena izan behar du; haurraren euskarri izango da, eta erreferenteak aurkitzeko aukera eskainiko dio (espazioan, denboran, pertsona arteko harremanetan...).
- Testuinguru aske batean, arau eta muga garbiak ezarri behar dira, gizarteko arauak barneratu ahal izateko eta sozializazio baketsu bat lortzeko.
- Pertsona helduek ez dute oldarkortasunik azalduko.
- Haurrek, haur bakoitzak, «onak» diren sententzia eta sentimendua bizitzeko aukera dutela ziurtatu behar dugu. Haur bakoitzak barnean duen giza positibotasun horrenganako konfiantza.
- Haurra zer den eta nolakoa den hartuko da abiapuntutzat, eta horretan jarriko da arreta, ez falta duen horretan.
- Pertsona, haurraren nortasuna, errespetatuko da.

Piklerren Hezkuntza Proiektuaren eraikuntza progresiboaren bosgarren mugarrira 0-3 urte bitarteko Haur Hezkuntza abian jartzea da.

1946. urtetik 2011. urtera arte fun-

tzionatu zuen Loczyk umezurtz-eskola gisa, azken urte horretan itxi zen arte. Baina zorionez, lantalde bikain hura ez zen desagertu, eta ez zen bertan behera gelditu haiek egindako lana: 2006an, Emmi Pikler Haur Eskola sortu zen, eta, horri esker, bizirik dirau, hain zuzen, umezurtz-eskolaren legatuak.

Testuinguruak, jakina, aldatu egin da, baina Haur Eskolako Piklerren Hezkuntza Proiektuak oinarri dituen printzipioak umezurtz-eskolako lana bideratu zuten printzipio berak dira. Bietan, haur bakoitzaren ongizatearen eta garapen harmoniatsuen arteko oreka aurkitu nahi da, bakoitzaren banakotasuna eta taldeko bizitza errespetatuz.

Haur Eskolara joaten diren haurrak beren familietara itzultzen dira egunero, eta hori ez da gertatzen umezurtz-eskolan edo umezurtz-tegian... Argi eta garbi ikusten da umezurtz-eskola batean arrisku gehiago dagoela; hauskorragoa da dena, egindako hutsegiteen ondorioak larriagoak dira, eta ezin dira horren erraz neutralizatu; baina ezinbestekoa da umezurtz-eskola batean haurraren garapen osasuntsua zaintzeko kontuan hartu den guztia oso aintzat hartzea Haur Eskolako egunerokoa.

Ez dira garai errazak. Gure gizarteak ez du zaintzen, edo gero eta gutxiago zaintzen du, eta gero eta gehiago kostatzen zaio zaintzeak duen garrantziaz jabetzea.

Horixe da Emmi Piklerren, harekin lan egin zutenen eta, gaur egun, lan horretan jarraitzen dutenen legatua.

Bernard Martino zinemagilearen beste erreferentzia batekin amaituko dugu. *Loczy, hazteko etxe bat filma testuinguru zailean* kaleratu zen, umezurtz-eskolaren iraupena arriskuan baitzegoen... Hauxe dio off-eko ahotsak: “Leku hau, funtzionatzen duen moduagatik munduan bakarra den leku hau, desagertzeko arriskuan dago. Hori gertatuko balitz, izugarria litzateke galera, ez bakarrik hungariarrentzat, baita gu guztiontzat ere. Banakoa suntsitzeko modu guztiak irakatsi dizkigun mende honetan, berdingabeak dira hemen bezala gizakia eraikitzen laguntzen dakiten lekuak”.

hik hasi

29. monografikoa

10



Egileak: Alexander Barandiaran eta Iñaki Larrea
Mondragoan Unibertsitateko Humanitate eta Hizkuntza Zientzien
fakultateko irakasleak eta Haurtegi ikertzaileko partaideak.

Ebaluazioa Haur Hezkuntzan: paradigma aldaketa



GALDEIDAZU

ZERGATIK ETA ZERTARAKO DA BEHARREZKOA FILOSOFIA ESKOLAN?

Filosofia, jalgi hadi plazara

Gogoan dut Filosofiako eskolan geundela. Nietzsche-ren aforismo batzuk aztertzen ari ginen, eta, irakurritakoak eragin zidan barruko euforiak bultzatuta edo, pentsatu nuen publikoki adieraztea ikasketen inguruan hartuta nuen erabakia. Gertuen nituen ikaskideei nire gogoaren berri eman nien: “Datarren urtean, filosofia ikastera joango naiz fakultatera”. Entzun egin zidan irakasleak. Arbeletik urrundu eta oso garrantzitsua zen zerbait esatera zertokidala sentitu nuen. Begiratu egin zidan, begiak bustita. Eskua sorbaldan jarri, estu heldu, eta oso benetakoak iruditu zitzaizkidan hitz batzuk zuzendu zizkidan. Kamera geldian bezala gogoratzen dut eszena hura, eta haren ahotik ateratako hitzak nire azaleko zulo txo guztietan nola sartzen ziren irudika dezaket: “Hemendik aurrera filosofiak zertarako balio duen galdetzen dizutenean, ez izan erreparorik filosofia ez dela inoren neskame izateko jaio erantzuteko, ez duela inor ‘zerbitzatzeko’ inolako bokaziorik”.

Irakasleak iragarri zuen galdera hura egiten didatenean, hitz horiek suma ditzaket nire buruko ganbaran, hagatik hagara kolpeka dabilen oihartzuna balira bezala. Testu honek galdera horri



OIHANA AMESKUA AGORA FILOSOFIA ELKARTEKO KIDEA



erantzun nahi dio berriro ere, ikasturte honetan hezkuntzan filosofiak jasan duen kolpeak galdera horixe berpiztu baitu. Izan daitezela hitz hauek nire irakasle haren mezua helarazteko uso berriak.

Putzua

Joan den irailean, hainbat hitzaldi antolatu zituen Agora Filosofia Elkarteak Bilbon, Donostian eta Gasteizen, filosofiaren defentsa egiteko, hain zuzen ere. Hizlariak ez ziren filosofoak soilik izan. Ekonomiaren, fisikaren, artearen, poesiaren, kazetaritzaren, zuzenbidearen eta oso desberdinak diren beste hainbat ezagutza-arloren ikuspegitik aritu ziren solaskideak, filosofiak haien eremuetan zer eragin duen mahaira ateraz. Hizketaldi batean, Daniel Innerarityk niretzat gordeko dudako istorio bat ekarri zigun. Tales Miletokoari buruz hasi zen mintzatzeko. Sinpliziok jaso zuenez, bazihoan Tales Miletoko kaleetan paseoan, eta, estropezu eginda, putzu batera erori zen. Laguntza eske hasi zen iker-tzailea, eta, haren oihuei kasu eginez, traziaren neska esklabo bat agertu omen zitzaion. Burua putzura gerturatuta, han ikusi zuen neskak maisua, oso itxura eskasean, eta, barre artean, esan

omen zion goitik behera: “Ai... , zuek, filosofook! Zerura begira bizi zarete, eta parez pare lurrean duzuen ikusi ere ez duzue egiten!”.

Entzuleok barre egin genuen istorioarekin. Oso gauza aringarria da nire ustez Filosofiaren zutoihal izan behar duen Tales hura tankera horretako anekdota batekin pentsamenduaren historian urratuta uztea!

Ohituta dago, beraz, filosofia horrelako trufei aurre egiten. Ez zaio arrotza gertatzen bere buruaren defentsa egin behar izatea. Mendebaldeko pentsamenduaren ibilbidean, behin baino gehiagotan topatuko dugu filosofia bazterrean geldirik, pentsakor, bere buruari galdezka ea bidean aurrera jarraitzea merezi duen, eta, jarraitzekotan, zer bide hartuko duen argitu nahian. Krisia bera ere ez zaio ezezaguna filosofiari; are gehiago, hartaz elikatzen da, neurri batean. Nolanahi ere, garai guztiak ez dira berdinak izan pentsamenduentzat. Zenbait garaitan, harritzeko gaitasunari, zalantza egiteari, galderak egitearen ausardiari, kritikotasunari, filosofiaren funtsezko osagaiak diren alderdi horiei guztiei, balio handiagoa eman izan zaie. Egun, ordea, ezin dugu esan une gozoak direnik hauek *jakiturekiko maitasuna* (filo + sophia) eta, oro har, arte eta humanitateak gara daitezen.

Legea

Aspaldi galdu zituen Filosofiak bere esparru naturalak ziren hiria, kalea, plaza... Beharbada, izango du oraindik taberna zuloren batean arnagunereren bat, lagunartean goizaldera arte luzatzen diren hizketaldi existentzial horietan. Hutsik geratu zitzaigun agora. Ederra litzateke benetan gure hirietako plazak *res pulicari* lotutako hausnarketan agertoki izatea. Hala ere, oso bestelakoa da pentsamenduari dagokion lekua. Eskola zen filosofiari geratzen zitzaion azken gotorlekua. Eta oso kolokan geratu da hori ere, LOMCEk eta Heziberrik ezarri duten esparru berrian.

Batxilergoko lehen mailako Filosofia irakasgaiak bere horretan dirau, baina bigarren mailako Filosofiaren historia ikasle guztientzat nahitaezko izatetik hautazko izatera pasatu da.

Filosofiari eskainitako ordu kopuru handia galdu da eskolan, eta, gaur gaurkoz, ez daukagu inolako bermerik arlo horretan aldaketa pozgarririk izan daitekeela pentsatzeko.

Nire beste irakasle bat hartuko dut aintzat orain. Unibertsitate garaikoa da hau. Hezkuntza legeak aztertzen zituen hark propio. Ez zitzaidan niri hura baino gauza aspergarriagorik bururatzen orduan. Baina lege horiek beste era batera ulertzen lagundu zidan haren azalpen batek: hezkuntza arautzen duen legeak gizakiaren eta gizartearen ideia bati erantzuten dio. Nolako gizakia amesten den, halakoa da legea. Hori horrela, LOMCE bera parez pare hartu, eta zer gizaki-ereduri erantzuten dion galdetzen diot neure buruari, halabeharrez. Ez da erraza asmatzea non dagoen egia, zein izan diren arau multzo horren benetako arrazoiak eta asmoak... Auskalo! Baina, erantzun bat bilatu nahian, jo dezagun legeak berak dioen horretara.

Hitzaurrean azaltzen duenez, LOMCEren motibazioetako bat (nagusia ez bada) PISA txostenean estatuko ikasleek ateratzen dituzten emaitza eskasei erantzuna eman nahi izatea da. Hezkuntzan ari garenok badakigu zer-nolako txostena den hori. Hiru urtean behin, kanpoko froga batzuk egiten dituzte hamabost urte dituzten ikasleek. Froga horien emaitzak jasotzen ditu txostenak, eta herrialdeen arteko konparazioak eta rankingak egiteko erabiltzen dituzte gero datuok. Txostena bera tresna gisa eztabaidagarria izateaz gain, haren iturburu da, nire ustez, kezkarriena. Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundeak (ELGA) egiten du PISA txostena. Erakunde horrek argitaratzen dituen txostenak erabili ditu Hezkuntza Ministerioak, goitik behera ezarri diguten lege hori emateko. Siglei soilik erreparatuta, zantzu ugari ditugu erakunde horrek dituen irizpideak erabat ekonomizistak direla pentsatzeko. Beraz, Hezkuntza helburu ekonomikoetara proiektatzen duela esatera ausartuko gara.

Ekonomia aipatu dugu, baina, egiari zor, izenlagun bat erantsi behar genioke. Sustatu nahi den ekonomia “merkatuen ekonomia” da, kapitalismoa deitu izan dugun horixe.

Ohituta dago filosofia trufei aurre egiten. Ez zaio arrotza gertatzen bere buruaren defentsa egin behar izatea. Mendebaldeko pentsamenduaren ibilbidean, behin baino gehiagotan topatuko dugu filosofia bazterrean geldirik, pentsakor, bere buruari galdezka ea bidean aurrera jarraitzea merezi duen, eta, jarraitzekotan, zer bide hartuko duen argitu nahian. Krisia bera ere ez zaio ezezaguna filosofiari; are gehiago, hartaz elikatzen da, neurri batean. Nolanahi ere, garai guztiak ez dira berdinak izan pentsamenduentzat. Zenbait garaitan, harritzeko gaitasunari, zalantza egiteari, galderak egitearen ausardiari, kritikotasunari, filosofiaren funtsezko osagaiak diren alderdi horiei guztiei, balio handiagoa eman izan zaie. Egun, ordea, ezin dugu esan une gozoak direnik hauek *jakiturekiko maitasuna* (filo + sophia) eta, oro har, arte eta humanitateak gara daitezen.

Eredu ekonomiko baten mesedetan jartzen du Hezkuntza LOMCEk, eta argi dago ez dela komeni eredu hori zalantzan jarriko duenik.

Galeanoren hitzak gogoan, aldrebes dagoen mundu batean bizi gara, gutxi batzuk indigestioz hiltzeko askok gosez hil behar duten mundu batean, eta bere neurrira egindako eskola behar du mundu zentzugabe horrek.

Filosofiak zalantzan jartzen du gauzen ordena naturala dirudiena. Problematizatzea du xede, argia dirudiena, garden itxura duen hori, zalantzan jartzea. Beharbada, horregatik zokoratu da lege horren barnean etengabe galderak egiten dituen, deserosea delako; zalantzaezinak diruditen egiturak, paradigmak... erlatibizatzen dituelako; eraikita dagoen mundua halakoa izatea nahi ote dugun pentsarazten digulako; injustizia eragiten duen munduaren antolaketa ekonomiko hau onartzeko edota elikatzeke prest ote gauden galdetzen digulako, eta antzeko gaiak errial ditzakeelako filosofiak.

Zuloak

“Eta egunak ez dira behar bezain beteak,
eta gauak ez dira behar bezain beteak,
eta bizitza badoa,
basoko sagu bat bezala, belarra mugitu ere egin gabe ...”

Ezra Pound



Egunak eta gauak behar bezain beteak ez diren bitartean, beti egongo da filosofiarentzat leku bat. Platonek zioenez, indar handi batek bultzatuta bezala (eros), ezagutzaren bidaian murgiltzen da gizakia, zuloak berak sorrarazten duen erakarpen-indarrak mugituta.

Eskola-ordu bat

Irakurle, oraindik hortxe jarraitzen baduzu, Filosofiaren Historiako saio batera sartu-irten bat egitera gonbidatzen

zaitut. Entzun. Filosofiaren sorrerari buruz ari dira atearen bestaldean; *mito*soetik *logoserako* jauziaz. Zabalik dute ikasgelako leihoa, ikastaldek amasa har dezan. Bazatuz?

Filosofiaren Historia, hirugarren eskola-eguna

“Filosofia K.a. VI. mendean sortu zen Asia Txikian (Jonian), Greziar Inperioko koloniak ziren hirietan. Zergatik han? Zergatik orduan? Bada, hiri haietan sortu ziren baldintza ekonomikoak, sozialak, kulturalak, politikoak... bereziak izan zirelako. Egeo itsasoaren inguruko hiri haiek, Mileto, Efeso, Halicarnaso eta beste, ez zeuden inperioaren gunen itogarrian, mundura eta pentsamendura zabalik baizik (...).

Hiri horietan hainbat pentsalarik (Talesengandik hasita) *mito*soetik *logosera* jauzi egin zutela esan ohi dugu. Baina zer esan nahi du horrek?

Munduaren ulerkera jakin bat adierazten duen kontakizun fantastikoa da mitoia. Irrazionalak diruditen arren, misterioaren munduari buruzko erantzunak lortzeko gizakiak duen behar arrazionala ase izan dute mitoeke mendeetan. Mito guztien atzean, galderaren bati erantzuteko saiakera dago ezkutuan: zein da gure munduaren jatorria? Nola sortu ziren eguna eta gaua? Eta urtaroak? Zeinek sortu zuen gure hiria? Zer da heriotza? Existentziak sor dezakeen ezinegona baretzen saiatzen diren azalpenak eman izan dizkigute mitoeke.

Aurrekoa aintzat hartuta, Filosofiak badu horrekin guztiaren zerikusirik; mitoak bezala, berak ere errealitatea azaldu nahi du, baina LOGOSa (arrazoia) erabiliko du horretarako.

Filosofiaren ekarpen handiena gizakiak planteatzen zituen galdera existentzialei erantzun arrazionalak ematen hastea izan zen. Mitoeke munduaren ikuskera kaotikoa erakusten zuten; izan ere, munduko gertaerak (fenomeno meteorologikoak, izurriteak, gaixotasunak, urtaroen joan-etorria, jaiotza-heriotza...) jainko-jainkosen uanean uneko apeten araberakoak ziren. Lehenengo filosofoak, ordea, LOGOSean edo arrazoiaren oinarritu ziren *physis*a, natura, interpretatzeko garaian. Izan ere, naturak

bere legeei jarraitzen die, haien ustez. Ordenatuta dago; elementu bakoitzak bere lekua eta funtzioa betetzen ditu. Unibertsoa KOSMOS gisa ulertuko dute lehen filosofo, zientzialari eta fisikariek”. (...)

Eskolak jarraitu egingo du. Ikasleen txanda da orain. Galdera batzuen inguruan hausnartu beharko dute:

- Zer pentsarazten dizue filosofo, fisikari eta zientzialari kontzeptu hirukoitzak? Ez al dira, bada, oso urrutikoak zientzia eta filosofia?
- Mitoetatik *logoserako* saltoa behin betikoa dela deritzozue? Une hartatik aurrera, kritikotasunez eta arrazoiaren zorrotzasunez ahalegintzen da gizakia mundua ulertzen? Edota, aitzitik, gaur egun ere baditugu errealitatea azaltzen diguten eta zalantzan jarri beharko genituzkeen mito berriak?

Hortxe utziko ditugu ikasleak eta irakaslea bera, galdera horien inguruan. Beharbada, filosofiaren eta zientziaren artean ez dagoela askotan irudikatzen den amildegirik usteko dute; are gehiago, zientziarik gabeko filosofiari ama galarazten zaiola. Lehen filosofoek zalantzaezinak ziruditen mitoak kolokan jartzean erakutsi zuten jarrera kritikoa, eguneroko bizitzan geuk ere behar-beharrezkoa dugula ohartuko dira agian, eta argi ikusiko dute ezin garela ahaztu logosaren argia pizteaz, kobazulotik irten nahi badugu bederen.

Augurioa

Krisietatik edaten jakin izan duenez, filosofia ez da deshidratatuko oraingo honetan ere; abila izan da beti krisia abagune bilakatzen. Ez du bere buruaz beste egingo, eta berriro ere asmatuko duela uste dut. “Filosofia, jalgi adi plazara” abesteko garaia izan daiteke hau, pasadizo latzen aurrean abestea flotagailu paregabea izaten da eta. Filosofiak ez du etsiko. Pairatu duen legehozkadak eskolatik harago mugiaraziko du; kalera, auzora eta espazio publikora zabaldu, eta, boomerang bat balitz bezala, eskolara itzuliko da zabalik utzi dugun leihotik, haizeberrituta.

ARGITALPENAK



URREZKO GILTZA

Patxi Zubizarreta / Jokin Mitxelena (Il.)
eta Joserra Senperena (Mus.)

ELKAR

Familia bitxi baten istorioa kontatzen du *Urrezko giltzak*: Olatz ile-apaintzailea, Martin kamioizalea, Kattalin, Nikolas eta Malen haurreak, Tomas aitona nekazaria eta Ageda amona bidaiazalea, Gaspar lorezain pobrea... 25 ipuin, 25 kantu eta 25 jolas biltzen dituen liburu batek eta bi CDk osatzen dute lan hau.



ZER DEMONTRE DAGO AULKIEN AZPIAN?

Harkaitz Cano / Lorena Martinez Oronoz

PAMIELA

Hogeita hiru testu poetikok, ipuin laburrek, aforismok eta jolas-proposamenek osatzen dute liburu hau. Testu bakoitzak, berriz, irudi iradokitzaileak ditu, irakurleari oihartzun bitxiak sorrarazteko modukoak. Sormen lana txandakakoa eta norabide bikoitzekoa izan da. Zenbaitetan irudiak ilustratu du testua, eta beste hainbatetan alderantziz.



ZESTOAKO LOROA

Iñaki Zubeldia / Estibalitz Jalon

EREIN

Gineatik Zestoara ekarri zuten Pepe, lora sinpatikoa, eta ez zuen gehiago handik alde egin nahi izan. Zoriontsu zen Zestoako tren geltokian. Balneariora zetorren handizki jendea handik pasatzen zen, baina haiek bezalaxe maite zuen Pepek herriko jende xehea. Okerrena etorri zen trenak abiarazteko txilibitua jotzen ikasi zuenean...



XOMORROPOEMAK - PIZTIPOEMAK

Leire Bilbao / Maite Mutuberria

PAMIELA

Hainbat animalia aitzakiatzat harturik idatziriko poema eta narrazio laburrak dira, bi liburutan jasoak. 6 eta 14 urte bitartekoentzat oso egokiak dira, Xomorropoemekin hasi eta Piztipoemekin jarraitzeko. Testuek errima eta erritmota lantzeko balio dute, baita kantatzeko ere. Jolas egiteko, marrazteko eta irudi-mena lantzeko ere aproposak dira.



IZARREN HAUTSA

Ixabel Millet / Maddi Irazoki

DENONARTEAN

Izar ederra zen Izartxo. Beti lagunekin jolasean ibiltzen zen, pozik eta irribarretsu. Behin batean, ordea, joateko garaia heldu zitzaion. Pitin bat tristetu egin zen, baina azkenean, begiak itxi eta eguzki-haizeak eramaten utzi zuen. Batean, urez beteriko mundu berri batera iritsi zen. Plisti-plasta zebilen mundu berri horretan, soka batetik loturik.



EUSKARA IRABAZTEKO BIDEAN

Garikoitz Goikoetxea

BERRIA-ELKAR-JAKIN

Euskararen egoeraren argazki panoramikoa egin du *Berria* egunkariko kazetariak liburu honetan. Elkarrek, *Berriak* eta *Jakinek* sustatutako Aleka bildumaren bigarren lana da. Ehun egileren iritzia jaso du, euskararen inguruan eztabaidagai diren gaiak azalertzeko: ezagutza eta erabilera, diskurtsoak, euskalgintza, hizkuntza politika...

PROPOSAMENA

UHARTEAREAN ALTXORRA erakusketa Mundua ehun ipuinetan

Banbulo, Txan fantasma, Saturna katua, lholdi, Xola, Patakon eta haur eta gazte literaturako beste hamaika pertsonaia batu dira Azkuna zentroan, Dijitalidadeak ekoitzi duen 'Uhartearen altxorra' erakusketan. Otsailaren 25era arte bisita daiteke, doan, bakarka zein bisita gidatuen bidez.



Berton sortutako haur eta gazte literaturaren berri zabala ematea du helburu Bilboko Azkuna zentroan ikusgai dagoen *Uhartearen altxorra* erakusketak, haur eta gazte literatura lantzen duten idazle eta irudigileak nabarmentzea, hain zuzen ere. Gai, garai, estilo eta forma aberastasuna da nagusi, begibelarrietan sartzen den gozamenaren lagin bat. Mariasun Landa, Juan Kruz Igerabide, Karlos Linazasoro, Pello Añorga, Jose Antonio Ormazabal, Bernardo Atxaga, Anjel Lertxundi, Harkaitz Cano, Txiliku, Miren


Agur Meabe, Arantxa Urretabizkaia, Patxi Zubizarreta, Antton Olariaga, Mikel Valverde, Eider Eibar, Jokin Mitxelena, Elena Odriozola, Maitte Gurrutxaga... eta beste hamaika idazle eta ilustratzaileen liburuek osatzen dute mundua ehun liburutan interpretatzeko aukera ematen duen erakusketa hau.

Koldo Izagirrek egin du liburuen hautaketa, Juanba Berasategi izan da arte zuzendaria eta Gotzon Barandiaran ekoizpen-arduraduna. Guztira euskal argitaletxeek argitaratutako ehun liburu daude ikusgai, euskaraz-

ko haur eta gazte literatura garaikidearen erakusgarri alde batetik, eta gure literaturaren historiaren adierazgarri bestetik. Euskarazko haur eta gazte literaturak azken 30 urteetan hala kantitatean nola kalitatean egin duen jautzia ikus daiteke Azkuna zentroan.

Haur eta gazteekin gozatzeko erakusketa da baina ez da haiei soilik zuzendua, antolatzaileek aintzat hartu dituzte gurasoak, hezitzaileak, literaturzaleak, kulturzaleak eta era guztietako publikoa.

Hiru formatutan atondu dute



'UHARTEAREN ALTXORRA' erakusketa

Non: Bilboko Azkuna Zentroan (Arri-
bar enparantza 4)

Noiz arte: otsailaren 25a arte

Harremanetarako:

harremanak@dijitalidadea.com

EGILEA

Dijitalidadea / Azkuna zentroa

Liburu hautaketa: Koldo Izagirre

Arte zuzendaritza: Juanba Berasategi

ekoizpena: Gotzon Barandiaran

TAILERRAK

(Ordua: 12:00etatik 13:00etara)

Guk papera eta arkatza, zuk piperra eta gatza, Maite Frankoren eskutik
Urtarrilak 21 eta otsailak 18

Nori zuzendua: 9-11 urteko haurrak

Sortu ditzagun PERTSO-NAHIAK!

Eider Eibarren eskutik

Urtarrilak 28 eta otsailak 4

Nori zuzendua: 8-10 urteko haurrak

Liburuetan gordetako altxorraren

mapa, Patxi Zubizarretaren eskutik
Otsailak 11 eta 25

Nori zuzendua: 11-13 urteko haurrak

erakusketa, panel handietan ilustrazioak eta pertsonaien esanak daude ikusgai, batetik. Panel horiek edukien arabera daude banatuak, animaliak protagonista dituzten liburuak daude batetik—*Errusika, Gorritxo eta Beltxitxo, Kroko, Saturna, Bambulo, Gutu eta Xola*, besteak beste— heroi eta pirata-liburuak —*Iholdi, Martinello eta Patakon...*—, detektibelanak, edota gizartea bera gai duten liburuak azkenik —askatasunaz, adibidez, *Zergatik ez dute kantatzen txantxangorriek?*, bakardadeaz *Nitaz ahaztu dira*, gezurraz *Nire lagunen gezurrak*, integrazioaz *Omar dendaria*, maiteminaz *Zabaleko txorimaloa*, sexismoaz *Markos kantinera* edota xenofobiaz *Ibaia maitasunaren oztopo*—.

Pantaila erraldoi batean Eriz Zapirainek prestatutako 18 minutuko ikusentzunezkoa proiektatzen da, Euskal Herriko hainbat ikastetxetako 40 bat haur eta gazte maite dituzten liburuez hizketan ageri ditu bideoak.

Hirugarrenik, liburuez gozatzeko mahaiekin eta aulkiekin atondutako txokoa dago, umeentzat prestatua. Bertan tailerrak eskaintzen dituzte Yolanda Arrietak, Maite Frankok, Patxi Zubizarretak eta Eider Eibarrek.

Literaturaren historian barrena

Koldo Izagirrek egin duen hautaketan 1980tik 2010 urtera bitarte argitaratu diren lanak biltzen dira,

nahiz eta egon badauden epe horren aurretik eta ondoren argitaratu diren hainbat lan esanguratsu. 80ko hamarkadan hasten da erakusketa honen ibilbidea urte horietan hasi baitzen haur eta gazteentzako euskal literaturaren aro berritza izandendatzen dena. Hamarkada horrek aldaketa kuantitatiboa eta kualitatiboa ekarri zituen euskal letretara. Ia ezer ez argitaratzen urtean 300 lan argitaratzera pasa zen 80etan. Hamarkada horren hasieran sortu ziren, halaber, haur eta gazteentzako euskal literaturako hiru funtsezko lan: Anjel Lertxundiren *Tristeak kontsolatzeko makina* (1981), Bernardo Atxagaren *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (1982) eta Mariasun Landaren *Txan fantasma* (1984).

Azken hamabost urteetan gora egin du haur eta gazteentzako argitaratu diren liburuen kopuruak eta kalitateak. Tematika, estilo eta genero aniztasuna da ezaugarri, eta horixe bera antzematen da erakusketan, errealismo fantastikoaren baitako lanak aurki daitezke, zientzia fikziozkoak, abenturazko liburuak, umorezkoak, misterio eta poliziakoak, errealismo kritikoaren korrantezkoak...

Erakusketak, momentuan gozatzeko esperientziatik harago, literatura ezagutzeko parada eskaintzen du Koldo Izagirrek hautatutako liburuen zerrendari esker.



ATZEKO ATETIK



IKASLE ENPIRIKOA

IRATI ANDA ESKALATZAILEA

Hezkuntza hitza entzun eta burura datorkidan lehenbiziko gauza eskola da, hezkuntza erakunde maximoa. Bertan zibilizatzen gaituzte eta bertan irakasten omen digute bizitzan beharko ditugun tresnak sortzen eta erabiltzen. Oroitzapenetan arakatzeko ibili naiz eta onartu behar dut gehiago ikasi dudala kalean hezkuntza erakundeetako lau paretan barruan baino. Zoaz unibertsitateera, esan zidaten, eta unibertsitateera joan nintzen Kirol Zientziak ikastera. Egin master bat, esan zidaten, eta Bigarren Hezkuntzako irakasle masterra egin nuen. Curriculum dotore jantzia daukat, baina ikasi, hezi, hazi, aktualizatu... hau da, munduan baliatu ahal izateko behar izan dudana hori guztia, munduan zehar egiten ditudan bidaietan ikasten dut, hezkuntza erakundeetako lau paretetatik at.

Egia esan, Kirol Zientzen ordez, Geologia ikasi nahi nuen nik, egu-

nen batean hitzaldiren batean *plaka tektoniko* hitzak erabiltzeko, beti iruditu zait *esternokleidomastoideo* hitza baino dotoreagoa. Tamalez ez nintzen ona Fisika eta Kimikan eta letretatik jo nuen latina, grekera eta filosofia ikastera. Onartu behar dut ostegun gauetako ordu txikietan filosofia gehiago ikasi nuela Batxilergoan baino, baina Floren, eskerrik asko zure pazientziagatik eta zure jakituria gurekin konpartitzeagatik.

Bizitzaren unibertsitatean ikasi duela jartzen du askok bere *Facebookeko* profilean eta izan ere ez diogu sekula ikasteari uzten. Bizitzak egunero eskaintzen digu lezioren bat. Nik behintzat horrela ikasten dut ondoen, bizitzak eskaintako lezioei kasu eginez. Eta zein jakintsua den bizitza, lezioa ondo ikasi ezean behin eta berriz jartzen gaitu egoera berean. Entsegua-errorea. Suak erretzen duela behin eta berriz entzun

arren, nire azalean sentitu arte ez naiz lasai geratzen. Ikasle enpirikoa naiz ni.

Ez dut hezkuntza-sistema oso leku onean utzi egia esateko. Ematen du ikastolan eta unibertsitatean ez nuela ezer ikasi. Ez da hainbesterako ere. Irakurtzen ikasi nuen, zenbakiekin jolasten, gurazekin marrazten atera gabe moztan edo nire ingelesezko lehen hitzak ere ikastolan ikasi nituen. Baina zalantzarik gabe gehien gustatzen zitzaidana lagunekin jolastea zen. *Baloi erre*a zen nire jolasik gustokoena, oso iaioa nintzen baloia saihesten eta.

Hemen kontatutakoa egiaren zati bat baino ez da, itsuen eta elefantearen ipuinean bezala, nik jasotako errealitatearen zatitxo bat. Lagun batek irakurri zuen errealitatearen zatitxo hau, eta ez zegoen batere ados nire ikuspuntuarekin. Berak elefantearen beste atalen bat ukituko zuen ziurrenik...

Pirritx, Porrotx & Mari Motots

disko-liburu bikoitza!

aurtengo uzta!!

TIPI-TAPA, KORRIKA!



+



HAIZEAREN HERRIRA



Manolu Urbietaren
Kanta berriak eta zaharrak



AMALUR

DVD bikoitza



* Amalur ikuskitzuna



* Zinika, lirika... Musika!
Musika ari du
* Erreportajeak:
Easerritarra izan nahi dut!



Puzlea
20, 26 eta 30
zuzeneko 3 puzzle

Euskaraz bilduma:
Kartoizko 4 ipuintxo



Amalur
Plaza ipuina:
Bilburiako 6. Ipuina

Tipi-Tapa Korrika!
Plaza ipuina:
Bilburiako 7. Ipuina



HAZIERA ETX. HEZIKETA ALDIZKARIA. 28. BERRAZA. 11

Hazi Hezi



2017an **Hazi Hezi** haziera eta heziketa aldizkariaren harpidedun egitera gonbidatzen zaitugu 20 euroren truke (urtean 4 aldizkari)

HAZIERA ETX. HEZIKETA ALDIZKARIA. 28. BERRAZA. 11

Hazi Hezi



Elkadura

ELKADURA. ELKADURA
"Haurrari beldarrik ez dloste lein behar gurado arte beldurna erian ere"
JONATAN
Eider Rodriguez

HAZIERA ETX. HEZIKETA ALDIZKARIA. 28. BERRAZA. 11

Hazi Hezi



Herri hezitzaileak

ELKADURA. ELKADURA
"Herri hezitzaileak zailgu boterea erabil dezakegela hartzeko"
JONATAN
Kontziliazioa:
Zer proposatzen dute

HAZIERA ETX. HEZIKETA ALDIZKARIA. 28. BERRAZA. 11

Hazi Hezi



Kontziliazioa Norvegia eta Islandian

ELKADURA. ELKADURA
"Gure enabakiek hartzeko ardura umetari gaitzakie pasatze"
JONATAN
Eider Rodriguez